

Gobernu-programa 2020-2024
XII Legegintzaldia

“Euskadi martxan”

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

PRINTZIOAK

5. orr.

- Osasuna bermatzea
- Ekonomia eta enplegua suspertzea
- Inor atzean ez uztea

ARDATZAK

1. ardatza: Oparotasuna

9. orr.

- Lehentasun bat: enplegua
- Industria eta nazioartekotzea
- Ikerketa eta berrikuntza
- Elikadura eta landaren eta itsasertzaren garapena
- Azpiegiturak eta garraio jasangarria
- Hiri Agenda, Etxebizitza, Hiri Berroneratzea
- Turismo jasangarria eta bikaintasunekoa
- Merkataritza eta ostalaritza
- Kontsumitzailea

2. ardatza: Pertsonak

35. orr.

- Hezkuntza Sistema
- Osasuna
- Gizarte Politikak eta Gazteria
- Genero-berdintasuna
- Justizia
- Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak
- Garapenerako Lankidetzeta
- Segurtasuna
- Kultura, Euskara eta Kirola

3. ardatza: Planeta

67. orr.

- Estrategia energetiko berria
- Klimaren eta ekonomia zirkularraren aldeko ekintza
- Natura-ingurunea eta biodibertsitatea kontserbatzea

4. ardatza: Autogobernua

73. orr.

- Euskadi-Basque Country
- Trantsizio Soziala eta 2030 Agenda
- Autogobernua
- Kudeaketa publiko gardena eta arduratsua

PRINTZIPIOAK



OSASUNA BERMATZEA

COVID-19aren pandemiak erakutsi du arlo sanitarioa eta soziala uztartzen jarraitu behar dugula, eta osasunaren ikuspegia txertatu behar dugula politika publiko guztietan.

Horrek esan nahi du osasun-larrialdiari erantzun behar zaiola eta arauak eguneratu behar direla.

Pandemiaren ondorioz, gure Gizarte Zerbitzuen Sistemak beste bultzada bat behar du, herritarren beharrei erantzuteko. Bereziki, pertsona zaugarrienengan jarri behar da arreta, babestu eta zaindu behar baititugu.



EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA

COVID-19 pandemiak eragin negatiboa izan du Euskadiko ekonomian eta enpleguan.

Bi arlo horiek berreskuratu egin behar dira, pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko, eta, aldi berean, erronka eta premia berrietara egokitu.

Hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzaren tresna izango da Herriaren Berreraikuntzarako eta Hazkunde Jasangarrirako Estrategia.

Eta helburuak, berriz, enpleguari eustea, langabezia murriztea, prekaritate eta behin-behinekotasunaren aurka borrokatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta; hori guztia Elkarrizketa Sozialaren Mahaian negoziatuko da.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak Espainiarekin batera lan egingo du *Next Generation UE Programatik* jaso beharreko Europako funtsen kudeaketan, baita Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazionalean ere, zeina Europako Batzordeari bidaliko baitio Espainiako Gobernuak.

Euskadik enpresa-proiektuen zerrenda adostu bat prestatuko du, Europako funts horiekin finantza daitezen.



INOR ATZEAN EZ UZTEA

COVID-19 pandemia dela eta, areagotu egin dira pobrezia-, arrisku-eta - bazterketa-egoerak, eta murriztu eskura ditugun baliabide publikoak.

Erakundeek ahaleginak egin behar dituzte gizartea kohesionatuta mantentzeko eta inor atzean ez uzteko.

Horretarako, zerbitzu publikoen eta gizarte-politiken alde egin behar da, eta pertsona eta kolektibo zaurgarrienekiko elkartasuna bultzatu.

Hori lortzeko, tresna hauek ditugu:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta erreformatzea
- Hezkuntza-sistema egokitzea eta hobetzea
- Etxebizitza-eskubidea zabaltzea
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzea arlo guztietan.

Politika horiek garatzea ahalbidetuko duten baliabide publikoak bermatzeko, bilketa-sistema berri bat diseinatu behar da, adostasunez.

Fiskalitate berri horrek progresiboagoa eta ekitatiboagoa izan beharko du, Europarekin parekatua eta errealitate ekonomiko eta sozial berrira egokitua. Hori lortzeko, tresna hauek ditugu:

- Baliabideak berrantolatzea, administrazioetan bikoiztasunak saihesteko
- Diru-sarreretarako bide berriak aztertzea (Europako funtsak barne)
- Iruzur fiskalaren kontrako borroka indartzea
- Zorpetze-politika zorrotza aplikatzea.

GOBERNU-PROGRAMA (2020-2024)

"Euskadi martxan"

1. PRINTZIPIOA



OSASUNA
bermatzea

2. PRINTZIPIOA



EKONOMIA
eta **ENPLEGUA**
suspertzea

3. PRINTZIPIOA



INOR ATZEAN
ez uztea



1. ardatza

OPAROTASUNA

Lehentasun bat:
enplegua
Industria eta
nazioartekotzea
Ikerketa eta berrikuntza
Elikadura eta landaren
eta itsasertzaren
garapena
Azpiegiturak eta garraio
jasangarria
Hiri Agenda, Etxebizitza,
Hiri Berroneratzea
Turismo jasangarria eta
bikaintasuneko
Merkataritza eta
ostalaritza
Kontsumitzailea

2. ardatza

PERTSONAK

Hezkuntza Sistema
Osasuna
Gizarte Politikak eta
Gazteria
Genero-berdintasuna
Justizia
Bizikidetzeta eta Giza
Eskubideak
Garapenerako
Lankidetzeta
Segurtasuna
Kultura, Euskara
eta Kirola

3. ardatza

PLANETA

Estrategia energetiko
berria
Klimaren eta ekonomia
zirkularraren aldeko
ekintza
Natura-ingurunea eta
biodibertsitatea
kontserbatzea

4. ardatza

AUTOGOBERNUA

Euskadi-Basque Country
Trantsizio Soziala
eta 2030 Agenda
Autogobernua
Kudeaketa publiko
gardena eta arduratsua



1. ardatza. OPAROTASUNA: Enplegua eta ekonomiaren susperraldia.



LEHENTASUN BAT: ENPLEGUA

1. KONPROMISOA:

Ekonomiaren Susperraldirako eta Enplegurako Sailarteko Esparru Programa.

- Programa egitea, koordinatzea eta bultzatzea, Euskadiren berreraikuntza sozial eta ekonomikorako, sail eta erakunde guztiak inplikatur, eta bat etorri 2030 Agendarekin, NBERen GJHrekin eta "Sure" eta "Next Generation UE" Europako programekin.

2. KONPROMISOA:

Enplegu-plana.

- Enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzea. Enplegurako prestakuntza, enplegu berdearen sorrera sustatuz.
- Plan pertsonalizatuak, langileak erronka digitalean birkualifikatzeko eta egokitzeko, batez ere 45 urtetik gorakoak.
- Tokiko eta eskualdeko planak egitea, garapen ekonomikoa bultzatzeko autoenplegua eta ekintzailtza sustatuz.
- Gazteen enplegurako txoke-plana
30.000 gaztek lehen lan-esperientzia izan dezaten:
 - prestakuntza duala
 - hezkuntza-mundutik lan-mundura pasatzea
 - prestakuntza- eta esperientzia-bekak, kontratatze konpromisodunak.
 - gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko programak
 - ekintzailtza, autoenplegua, start ups
 - tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
 - enplegu publikoaren eskaintzak
 - prekarietatearen aurkako programak

3. KONPROMISOA:

Enplegu-sistema publikoa, Lanbide ardatz nagusitzat hartuta.

- Enplegurako gobernantza-eredu berri bat bultzatzea. Lanbidek lan-merkatura bideratutako zerbitzua indartuko du, arreta gehiago jarriz enpresan eta pertsonengan.
- Arreta eta esku-hartze zerbitzu pertsonalizatuak, teknologia digital berrietan oinarritutako prestakuntzarekin.
- Behatoki bat sortzea. identifikatzeko zer konpetentzia profesional beharko diren etorkizunean.
- Enpresen eta LHko ikastetxeen arteko lankidetzak handiagoa lan-merkatuaren beharretara hobeto egokitzeak.

4. KONPROMISOA:

Enpleguaren kalitatea hobetzea.

- Plan bat, murrizteko hala enpleguaren behin-behinekotasuna nola lanaldi partzialak. Plan hori Elkarrizketa Sozialeko Mahaian negoziatuko da, patronalaren eta sindikatuen artean.
- Laneko Segurtasun eta Osasun Estrategia 2021-2025, laneko istripu larriak eta joan-etorrietakoak murrizteko.
- Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztea hitzarmen kolektiboetan berdintasun-planak sartuz.
- Neurriak hartzea bizitza pertsonala, lana eta familia kontziliatzeko. Telelana, ordutegi malguak ... kontuan hartuta zer errealitate duten enpresek eta familiek.

5. KONPROMISOA:

Mikroekintzailtzari, autonomoei eta mikroenpresa txiki eta ertainei laguntzea.

- 4.000 mikroenpresa eta 5.500 enplegu autonomo sortzen laguntzea. Ikastetxeetan, ekintzailtzari buruzko prestakuntza ematea, eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntzea mikroenpresak edo autoenplegua sortzen.
- Ekintzailtza eta barne-ekintzailtza lehenestea enplegua sortzeko arlo hauetan: digitalizazioa, trantsizio ekologikoa, zahartze aktiboa edo zaintzen ekonomia.
- Ekintzailtza sustatzeko lankidetzak-akordioak egitea foru-aldundien, udalen, eskualdeko garapen-agentzien eta beste eragile batzuen artean.

- Zailtasun ekonomikoak dituzten enpresetan likidezia sustatzea. Laguntza-programak autonomo eta mikroenpresa txiki eta ertainentzat eta enpresa txiki eta ertainentzat, lanpostuei eusteko eta berriak sortzeko.

6. KONPROMISOA:

Gizarte-ekonomia indartzea.

- Euskadiko Kooperatiben Legea garatzea
- Gizarte-ekonomiako enpresei laguntzea beren tamaina eta bazkide-kopurua handi dezaten eta elkarren arteko lankidetzeta eta elkartegintza sustatzeko.
- Gizarte-ekonomiako enpresei laguntzea kudeaketa, prestakuntza, gobernu ona eta gizarte-erantzukizuna hobetzen.
- Gizarte-ekonomiako enpresetan teknologiko eta bestelako berrikuntza-proiektuak bultzatzea sektoreko entitateekin lankidetzan.

7. KONPROMISOA:

Zailtasun handienak dituzten langabeen laneratzea sustatzea.

- 140 milioi euro, tokiko eta eskualdeko enplegu-planetarako, aldundiekin eta udalekin lankidetzan. Lehentasuna emango zaie gizarte-bazterketako arriskuan daudenei, dibertsitate funtzionala dutenei, gazteei, 45 urtetik gorakoei eta luzaroko langabeei.
- Prestakuntza eta laguntza pertsonala, 45 urtetik gorakoentzat, genero-ikuspegian oinarrituta eta arreta berezia eskainiz desgaitasunen bat duten pertsonen, langabetu kroniko bihur ez daitezen.
- Proiektu pilotuak eta lankidetzakoak, zailtasun handienak dituzten langabetuak gizarteratzeko eta laneratzeke lan egiten duten enpresa eta hirugarren sektoreko antolakundeekin.

8. KONPROMISOA:

Elkarrizketa soziala eta euskal enpresa inklusibo eta parte-hartzailearen eredua.

- Gobernuaren, patronalaren eta sindikatuen arteko elkarrizketa soziala bultzatzea, modu horretan indartzeko hala Lan Harremanen Euskal Sistema nola Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko lantaldeak.
- Hauen aldeko neurriak hartzea:
 - Enplegu egonkorragoak eta enpresa lehiakorragoak
 - Soldata-arrakala murriztea
 - Bizitza pertsonala, lana eta familia erantzunkidetasunez kontziliatzea

- Telelana, ordutegi malguak, eta lanaren behin-behinekotasuna eta nahi gabeko partzialtasuna jaistea.
- Langileen etengabeko prestakuntza
- Segurtasuna eta osasuna lanpostuan eta "in itinere" joan-etorrietan
- Aurrera egitea Euskal enpresa-eredu berri baterantz, eta langileek enpresan parte hartzea eta hari gehiago lotzea, gardentasuna hobetuz.
- 2019an onartutako Oñatiko Adierazpena gauzatzea: "Lan-harremanen eredu berriturako dekalogo".

9. KONPROMISOA:

Lan-iruzurraren aurka egitea eta Lan Ikuskaritza indartzea.

- Lanaldiak betearazteko ikuskapen-plan berezi bat ezartzea eta kontratazio-iruzurra jazartzea.
Aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea aurreikusten da: 7.000 pertsona urtean bataz beste.
Lan Ikuskaritzak baliabide material eta giza baliabide gehiago izango ditu.
- Lan-iruzurraren aurkako postontzi anonimoaren erabilera sustatzea, lan-baldintzak zuzen aplikatu daitezkeen indartzeko.
- Ikuskapen-kanpaina, euskal enpresetan gizonen eta emakumeen arteko lan-diskriminazioa ezabatzeko.

10. KONPROMISOA:

Prebentzioa eta lan-osasuna.

- Covid19 olatu berrien aurrean, osasun-neurriak ezartzea lantokian, honako hauekiko adostasunez eta partaidetzaz: prebentzio-zerbitzuak, langileen ordezkariek, sindikatuak, patronalak, Lan Ikuskaritza eta lan-agintaritza, Osalanen lankidetzarekin.
2021-2025eko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren oinarria izango da.

11. KONPROMISOA:

Gizarte-bazterkeriaren aurkako DSBE sistema.

- DSBE-Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eredu indartzea kontuan hartuta BGDS prestazioa (Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera).
- DSBEa unibertsalagoa izatea eta beren premiak guztiz beteta ikusten ez dituzten biztanleria-taldeengana iristea, batez ere seme-alabak ardurapean dituzten familia babesgabeengana.
- Prestazioak eta laguntzak jasotzeko izapideak arintzea, eta horiek ematerakoan zorrotasun eta kontrol handiagoa izatea.
- DSBEa jasotzen dutenek lan egin ahal badute, lan-merkatuan sar daitezkeen sustatzea.

12. KONPROMISOA:

V. Gizarteratzeko Euskal Plana, 2022-2025

- Gizarteratzeko V. Euskal Plana (2022-2025) onartzea, erronka berriei eta krisi ekonomikoko garaien ondorioei erantzuteko, kontuan hartuta genero-ikuspegia.



INDUSTRIA ETA NAZIOARTEKOTZEA

13. KONPROMISOA:

Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa.

- Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa onartzea industriak eta zerbitzu aurreratuak EAEko BPGaren %40 baino gehiago izan daitezen.
- Kluster-politika berrorientatzea, lehenetsua emanaz Euskadin kokatzen diren industria-proiektuen garapenari.
- Euskal osasun-industriaren klusterra indartzea, enpresen, teknologia-zentroen eta Osakidetzaeren arteko lankidetzaren bidez, ekipamenduak, produktuak eta zerbitzuak hornitzeko eta teknologia aurreratuak beste berri batzuk garatzeko.

14. KONPROMISOA:

4.0 industria eta adimen artifiziala.

- Gizarte Elkarriketarako Mahaian, gizarte- eta ekonomia-eragileekin batera, prestakuntza- eta birkualifikazio-beharrei heltzea 4.0 industriarako bidezko trantsizioa lortzeko.
- Adimen artifizialeko estrategia bat lantzea, Administrazioan hobetzeko hala administrazio-prozesuak nola datuak biltegitratzekoak.
- Basque Artificial Intelligence Center sustatzea enpresetan adimen artifiziala ezar dadin bultzatzeko.
- Enpresa guztiei laguntzea abiadura handiko komunikazioak garatu ahal izan ditzaten.
- Enpresen digitalizazioa bultzatzea, eta Data Center berri bat sortzea, lehiakorragoak izateko.
- Enpresek Energia Klusterrarekin lan egin dezaten bultzatzea, bidezko trantsizio energetiko eta klimatikoa lortzeko.
- Abian jartzea "Industria eta zerbitzu aurreratuak" programa bat "produktuen industriatik" "konponbideen industriara" pasatzeko.
- Industria-jarduera Euskadin errotuta mantentzen laguntzea eta proiektu berriak erakartzea, industria-proiektu estrategikoak indartzeko.
- Sailen arteko koordinazioa, enpresa-proiektuak abian jartzeko behar diren administrazio-izapideak errazteko; horrekin batera, industriak deslokalizatzeko arriskua murriztuko da.
- Euskal enpresek Europako balio-kateetan parte har dezaten sustatzea, batez ere espezializazio adimendunaren arloan (RIS3 Euskadi).

- Finkatuz Funtsaren aurrekontua handitzea, euskal enpresa traktoreak errotzeko eta euskal ekonomia dinamizatzeko berme gisa.

15. KONPROMISOA:

ETEEK laguntzea (enpresa txikiak eta ertainak).

- ETEei lehiakorrak izaten laguntzeko programa espezifikoa: berrikuntza ez-teknologikoa, negozio-eredu berrien bidez, marketina ...
- Laguntza finantzarioak sustatzea, inbertsioetarako; Lankidetzeta eta partaidetzan jardutea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko enpresen artean, eta euskal enpresak buru diren I+G proiektuetan parte hartzea.
- Makineriaren Renove planak indartzea, enpresa txikiak eta ertainak azkarrago egokitu daitezen robotikara eta digitalizaziora.
- Langileak aro digital berrian prestatzeko neurriak

16. KONPROMISOA:

Azpiegiturak eta enpresa-lurzorua.

- Bizkaian: Ezkerraldea-Meatzaldean parke teknologiko berria.
- Gipuzkoan: Eremuak handitzea Eibarren (Erisono), Galarreta-Hernanin, Hondarribia-Irunen, Pasaian ...
- Araban: Arabako Parke Teknologikoa beharizanen arabera handitzea
- "Eskualde-intereseko proiektua/proiektu estrategikoa" figura sortzea, kanpoko inbertsioak ekartzen laguntzeko.
- Erakundeen arteko funtsa, nabarmentzeko hala lurzoru kutsatuak nola degradatuak.
- Enpresak jarduera ekonomiko berrietarako ixteagatik edo lekuz aldatzeagatik erabiltzen ez diren lurzoruak edo instalazioak berrerabiltzea.

17. KONPROMISOA:

Lehentasuneko jarduketa-eremuak eta zailtasunak dituzten enpresak.

- Lehentasuneko udalerrri eta eskualdeetan jarduteko planak, eta zailtasunak dituzten edo berregituratzen ari diren enpresei laguntzea.
- Garapen industrialerako eta sozioekonomikorako estrategia lehentasuneko eskualdeetarako (2018-2020ko talka-planaren jarraipena).
- Plan estrategikoak Ezkerraldea-Meatzalderako, Enkarterrietarako eta Oarsoalderako, eremu behartsu diren heinean. (Aiala eta beste eskualde batzuk, halakotzat hartzeko baldintzak betetzen badituzte)
- Bideratu Programa eta Luzaro Funtsaren maileguak indartzea, zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko hala berregituratzen edo teknologian inbertitzen nola beren plantillak prestatzen eta birziklatzen.

18. KONPROMISOA:

Euskal enpresak nazioartekotzea.

- Enpresak Nazioartekotzeko Programa 2025, honako jarduketara hauekin:
 - Adimen lehiakorreko eredu bat sortzea
 - Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea
 - Hautatutako eskualdeekin akordioak finkatzea
 - Nazioarteko merkatuetan espezializatutako profesionalak gehitzea
 - Nazioartekotzeari laguntza finantzarioa emateko programak garatzea
 - Funts publiko-pribatuekin parte hartzea euskal enpresetan, Nazioartean zabaltzeko.
- “Euskadi Basque Country” marka bultzatzea, euskal enpresak kanpoan aitortzeko.
- Lankidetzeta handiagoa klusterren eta merkataritza-ganberen artean, enpresak nazioartekotzeko laguntza publiko gisa.
- Garapen jasangarriko irizpideak sartzea enpresak nazioartekotzeko laguntzak emateko irizpide gisa.



IKERKETA ETA BERRIKUNTZA

19. KONPROMISOA:

Espezializazio adimenduna.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plan Estrategikoa.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plan Estrategikoa-ZTBP Euskadiko erronka sozial eta ekonomikoei erantzuteko.
- Espezializazio adimendunaren estrategian sakontzea; lehentasuna izango dute teknologiarekin, ingurumenarekin eta osasunarekin lotutako trantsizioek.
- Indartzea ekonomikoki eta teknologikoki Euskadin potentziala duten arloak, hala nola, elikadura osasungarria, eko-berrikuntza,
- hiri jasangarriak eta sormenezko industria kulturalak.
- GJHei dagokienez, I+G+Btik erantzutea gizarte-erronkei: kalitatezko enplegua, osasuna, klima-aldaketa, digitalizazioa eta genero-berdintasuna.
- Enpresen, zentro teknologikoen eta unibertsitateen arteko lankidetzak sustatzea zahartze osasuntsuari, mugikortasun elektrikoari eta ekonomia zirkularrari buruzko ikerketetan.

20. KONPROMISOA:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema.

- “Basque Research and Technology Alliance” (BRTA) sendotzea Euskadin ikerkuntzan eta teknologian erreferente den eta nazioarteko proiektzioa duen heinean.
- Euskal enpresen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen arteko lankidetzak-proiektuetarako laguntza indartzea.
- Euskal unibertsitate-sisteman, bikaintasuneko ikerkuntza bultzatzea, ikerketa zientifikoa sustatzea eta Europako ikertzaileak erakartzea.

21. KONPROMISOA:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema nazioartekotzea.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren nazioartekotzean aurrera egitea, eta euskal parte-hartzea bultzatzea “Europako Horizontea” programaren misioetan.
- Euskal Sareko eragileak Europako proiektuen buru izateko laguntza-programa.

- Euskadi helmuga erakargarria izatea berrikuntza-arloko nazioarteko inbertsioetarako.
- "Start-up" berritzaileak sustatzea eta Euskadi berrikuntzaren erreferente bihurtzea Europan, hango programetan gehiago parte hartuz (EIT Food edo Red Digital Innovation Hub).

22. KONPROMISOA:

I+G+B inbertsio gehiago

- I+G+B arloko aurrekontua urteko batezbestekoa % 6 handitzea.

23. KONPROMISOA:

Proiektu estrategikoak, I+Gren, berrikuntzarako erosketa publikoaren eta zibersegurtasun industrialaren arlokoak.

- Enpresen I+G-ko laguntzak indartzea. Proiektuak garatzeko programak, enpresa liderren beste txikiago batzuen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen artekoak.
- I+G-ko 120 proiektu estrategiko garatzea.
- Administrazioak produktu eta zerbitzu berritzaileen erosketa publikoa sustatzea.
- Eusko Jaurlaritzatik edo haren enpresa publikoetatik, erosketa publikoko 12 ekimen bultzatzea.
- Basque Cybersecurity Centre bultzatzea, Euskadi erreferente teknologiko lehiakorra eta erakargarria izan dadin zibersegurtasun industrialean.

24. KONPROMISOA:

Berrikuntza gehiago ETEetan.

- Berrikuntza enpresa txikietara eta ertainetara eramatea. Berrikuntza teknologikoen bidez, ekoizpen-eredu berriak lortzea, jasangarriagoak eta karbono-aztarna gutxiagokoak.
- 5.000 ETEk eraldaketa digitalarekin eta berrikuntzarekin bat egin dezaten lortzea, laguntza-programen bidez.
- Berrikuntzarako programak indartzea merkataritzaren, marketinaren, antolaketaren eta diseinu industrialaren arloan.
- ETEetan berrikuntza eta balidazio esperimentala babestea LHko ikastetxeen laguntzarekin.
- ETE berritzaileak aintzat hartuko dituen sistema bat abian jartzea, haien irudia eta prestigioa hobetzeko.

25. KONPROMISOA:

Talentu teknologiko gehiago.

- Ikertzaileen prestakuntzan, industriaren arloko doktoretza sustatzea.
- Programa bat abian jartzea BRTA (Basque Research and Technology Alliance) programaren bidez, nazioarteko talentua euskal zentro teknologikoetara erakartzeko.
- Hezkuntza-eremutik bokazioa piztea zientziaren, Teknologiaren, Ingeniaritzaren eta Matematikaren arloan; emakumeak industria-adarretan sartzea.
- Emakumeei laguntzea industriako I+G proiektuetan aitzindari izan daitezen.

26. KONPROMISOA:

Ekintzailtza berritzailea.

- Ekintzailtza-plana, lankidetzan jardunez aldundiekin, udalekin eta euskal ekintzailtzako eragileekin.
- Ekintzaileak publikoki aintzatesteko ekintzak
- Kultura ekintzailea sustatzeko programa, hezkuntzaren eremurako eta zientzia eta teknologia enpresarialaren arlorako.
- BIND 4.0. ekimena, enpresa teknologiko berritzaileak sortzen laguntzeko, leihatila bakar gisa jardungo duen atari zentralizatu bat garatuz.
- Lehenengo fasean dauden enpresentzako laguntza finantzarioko programak: Ekintzaile, Aurrera eta Basque Funtsa.



ELIKADURA ETA LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENA

27. KONPROMISOA:

Elikadura ekologikoa, tokikoa, jasangarria eta osasungarria.

- Euskadiko Landa Garapenaren eta Nekazaritza Politika Erkidearen Plana, aurrera egiteko nekazaritza berritzaile eta iraunkor baten alde, osasuna eta ingurumena errespetatuz, eta erakundeen eta sektoreko eragileen artean adostua.
- Ekimenak, elikagaiak alferrik ez galtzeko, eta berreskuratzeko edo berrerabiltzeko.
- Nekazaritza ekologikoaren ekoizpena 7.500 hektarearaino handitzea.
- Belaunaldien arteko erreleboa bermatzea, eta neurriak bultzatzea nekazaritza-sektorearen eta elikagai-industriaren modernizatorako eta lehiakortasunerako.
- Mahastizaintzako eta ardogintzako eskualdeei laguntzea, kalitate handiko ardoak ekoiztu eta merkaturatzeko eta familia-upategiaren eredia babesteko.
- Kontratazio publikoko klausula berriak sar daitezzen bultzatzea, barruan hartzen dituztenak hala ingurumen-irizpideak nola kilometro zeroeko ekoizpenak.

28. KONPROMISOA:

Arrantza-baliabideen kudeaketa jasangarria.

- Euskadiko Itsas eta Arrantzarako Europako Funtsaren Programa (2021-2027), arrantza-lehiakortasunean eta -jasangarritasunean oinarritua.
- Arrantzako organismo ordaintzaile propioa sortzea, programa modu autonomoan kudeatzeko.
- Euskal presentzia arrantzari buruzko nazioarteko akordioetan, Estatuko Gobernuarekin lankidetzan.
- Lankidetzak-hitzarmenak, antxoaren eta hegaluzearen arrantza-kuotak kudeatu ahal izateko euskal eskumenen barruan.
- Talentua erakartzea eta atxikitzea nautikako eta arrantzako prestakuntza-zentroetatik aginte-postu kualifikatuetara.
- Neurriak hartzea arrantza-enpresetan belaunaldi-erreleboa ziurtatzeko, Euskadin sektorearen etorkizuna eta sustraitzea bermatzeko.
- Itsas akuikultura jasangarria sustatzea, ekonomia urdin eta zirkularreko ikerketaren eta berrikuntzaren bidez

29. KONPROMISOA:

Portuen kudeaketa eta euskal landa- eta itsasertz-ingurunearen babesa.

- Euskadiko eta Akitania Berriko kirol-portuetako zerbitzuen eskaintza bateratua.
- "Interes orokorreko portuak" gaia transferitzeko akordioa. Autogobernu Sailarekin batera lantzea, EAEko erakundeekin eta Espainiako Gobernuarekin hasitako prozesuarekin jarraituz.
- Natura-ondarea kontserbatzeko neurriak eta landa-ingurunearen garapen sozioekonomikoa.
- Landa Garapenaren Lege Proiektua onartzea.
- Parte-hartzea indartzea, hala landa eta itsasertzearen garapenaren eragile-sarearena nola tokiko ekintza-taldeena.
- Proiektu berritzaileak babestea, landa- eta itsasertz-eremuetan turismoarekin, osasunarekin, ongizatearekin eta teknologia berriekin lotutako enplegua sortzen dutenak.
- Landa-eremuan enplegua sortzeko programak, hauei zuzenduak batez ere: emakumeak, gazteak eta enplegua lortzeko zailtasunak dituzten kolektiboak.
- Azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak, landa- eta itsasertz-ingurunean bizi-kalitate ona izatea ziurtatzen dutenak.

30. KONPROMISOA:

Nekazaritza-elikagaien sektorea, erreferente izango dena ekintzailtzan, berrikuntzan eta klima-aldaketan.

- Proiektu berritzaileak bultzatzea nekazaritza-elikagaien eta zuraren sektorean, ekonomia urdin, zirkular edo sozialarekin lotutakoak.
- 4.0 teknologia eta konponbideak sartzea elikagaien eta egurraren balio-katean.
- Ekintzailtza elikagaien sektorean: BIND 4.0 programa, EIT Food-en egoitzako START up-ak.
- Estrategia eta politika guztietan, eskakizun klimatikoak txertatzea elikagaien eta zuraren balio-katean.
- Kalitate-ziurtagiriak, abeltzaintza-ekoizpenetan.

31. KONPROMISOA:

Euskadi, Europa hegoaldeko Bioekonomiako poloa.

- “Biekonomiaren Euskal Estrategia” eta “Biekonomiarako Euskal Aliantza”, Europako Bioeskualdeen Sarearen buru.
- Zuraren produktibitatea, eraldaketa eta kontserbazioa hobetzea, biomasa sustatuz energia-baliabide gisa.
- Ekintzailtza eta enpresak sortzea Bioekonomiaren eremuan, bereziki nekazaritza- eta basogintza-sektorean eta elikagaien industriaren eraldaketan.



AZPIEGITURAK ETA GARRAIO JASANGARRIA

32. KONPROMISOA:

Mugikortasun jasangarria.

- Mugikortasun Jasangarriaren Legea. Garraio-sistema berri bat, lagunduko duena klima-aldaketaren eta horrek herritarrengan eta ingurumenean dituen ondorio negatiboen aurkako borrokan. Mugikortasun Jasangarriaren Plana 2021-2025,
- erronka hauei ekiteko: mugikortasun jasangarriko eredu berri bat, igorpen gutxiko garraioa, ibilgailu elektrikoa, elektrolindegia eta pizgarri fiskalak.
- Garraio publikoa sustatzea: txartel bakarra, tokiko planak eta hobaria hiri-mugikortasun jasangarriaren erabilera intentsiboagatik.
- Flotak berritzeko eta elektrizitatez kargatzeko pizgarriak, bizikleten eta beste ibilgailu elektriko arinen erabilera.
- Birkarga azkarreko sarea hirukoiztea EAEn, 100 puntura iritsiz.
- Garraio publikoa elektrifikatzea, flotak berrituz.
- Autobus elektriko adimenduneko proiektuak, biztanleria-dentsitate handiko hiriguneetan.
- Gizarte-sentsibilizazioa eta mugikortasun jasangarriaren aldeko itun sozialaren proposamena.

33. KONPROMISOA:

Europako korridore atlantikoa: Euskadi, funtsezko kate-maila.

- Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzea eta trenez konektatzea Bilboko portuarekin, TEN-t salgaien korridore atlantikoaren garapen gisa.
- Lille-Vitoria/Gasteiz trenbide-autobidea, Jundizko plataforma multimodala amaitzeko.
- Lezoko plataforma logistikoa trenbide-sarerako loturarekin, Pasaiaiko portua operatiboagoa izan dadin.
- Azpiegitura logistikoak modernizatzeko plana, trenbide- eta portu-konexioak hobetuz.
- Forondako aireportuko VIAP plataforma, eta azpiegitura logistikoen kudeaketa digitalizatzea.
- VÍAIRÚN proiektua babestea, eremuaren hiri-garapenerako

34. KONPROMISOA:

Trenbideko inbertsioak.

- Euskal Y-a amaitzea Irun, Donostia, Ezkio, Bilbo eta Gasteizko geltokiekin.
- Donostiako lurpeko saihebiderearen obra amaitzea.
- Loiolako Erriberak auzoko aldageltokia eraikitzea.
- Topoaren hobekuntzak burutzea Pasaian eta Irunen.
- Eibar eta Donostia arteko lineen hobekuntzak burutzea.
- Aginagako hobekuntza-lanak egitea, Eibar eta Donostialdea arteko zerbitzuak hobetzeko.
- Trenbide-lineak udalerrietan integratzeko ekintzak, udalekin hitzarmenak eginez.
- Gasteizen, tranbia Salburuara eta Zabalganara zabaltzea.
- Bilbon, tranbia Boluetara zabaltzea, La Peñarako sarbideekin.
- Bilbon, metroaren 4. eta 5. lineak hastea, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) azterlanen ondoren.
- Bilbo-Loiuko aireportuarekiko tren bidezko konexioan aurrera egitea.

35. KONPROMISOA:

Garraio-azpiegiturak Euskadira transferitzea.

- Trenbideen eta aireportuen transferentzia egiteko Akordioa.



HIRI AGENDA, ETXEBIZITZA, HIRI BERRONERATZEA

Hiri Agenda

Aurreko legegintzaldian Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda onartu zen, Europako eta NBEren ekimenen ildotik.

Helburua da hiri jasangarri, inklusibo eta adimendunen eredurantz joatea, eta Euskadi erreferentziazko lurralde bihurtzea Europa mailan.

36. KONPROMISOA:

Bultzatu 2050, Euskadiko Hiri Agenda.

- Euskadiko Hiri Agenda garatzea eta Bultzatu 2050 Foroa martxan jartzea.
- Hiri-garapenean, genero-ikuspegia txertatzea
- Hiri-politika publiko osagarriak eta integralak
- Aldizkako txostenak, Euskadiko egoera eta helburuen betetze-maila ebaluatzeko.
- I+G+B prozesuak bultzatzea hiri jasangarrien esparruan
- Araudia jasangarritasunaren errealitate berrira eguneratzea

Etxebizitza eta hiri-berrenortzea

Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala, etxebizitza eskubide subjektibo gisa hartuta.

Horrek honako hauek hartzen ditu kontuan: etxebizitzarako irispidea baliabiderik ez duten pertsonentzat, etxebizitzen funtzio soziala, alokairuak sustatzea eta etxebizitza hutsak birgaitzea eta aktibatzea.

37. KONPROMISOA:

15 urterako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala, eta legegintzaldiko Etxebizitza Plan Zuzentzailea onartzea.

- Etxebizitza Plan Zuzentzaile berri bat onartzea 2021-2023rako
- Etxebizitza publikoaren sustapeneko % 100 alokairura bideratzea
- Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa legez garatzea, DSBEaren etxebizitza-prestazio osagarritik Etxebizitzaren Legean aurreikusitakora igarotzeko
- Telelanaren araudia garatzea: espazioen bizigarritasun-baldintzak, osasuna (aireztapena, balkoiak), familia-kontziliazioa (haurrak, adinekoak); eta aldi baterako etxebizitzarena berrikustea (Ada).
- Etxebizitza publiko berriak eta zuzkidura-bizitokiak sustatzea

- Etxebizitza hutsei buruzko araudia.
Etxebizitza hutsak etxebizitza sozialeko merkatura bideratzea.
ASAP eta Bizigune programak indartzea
(alokairu seguruak arrazoizko prezioan)
- Lokal eta lonja hutsak etxebizitza bihurtzeko programak
- Etxebizitza ordaintzeko laguntzak eta alokairu sozialerako etxebizitza gehiago. Babestutako alokairua sustatzea.
- Alokairuko eskaintza sustatzeko neurri fiskalak
- Etxebizitza bat eskuratzeko eta esleitzeko sistemak hobetzea kolektibo hauei begira: gazteak, adinekoak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak eta genero-indarkeriaren biktimak.
- Energia-kudeatzaile propioa sortzea, etxebizitza-parke publikoaren kudeaketa aurreratua eta integrala bultzatuko duena efizientzia energetikoko eta digitalizazioko irizpideak aplikatuz.
- Etxegabete-prozesuetan pertsona zaurgarrienei laguntzea.
- Etxebizitza babestuen kudeaketa hobetzea, Alokabide bezalako programen eta hirugarren sektorearekiko lankidetzaren bidez.
- Alternatiba berritzaileak: *cohousing-a*, erabilera-lagapeneko kooperatibak eta erosketaren eta alokairuaren arteko tarteko figurak. Publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak, eraikin eta auzo berberetan belaunaldien arteko bizikidetzak-ekimenak sustatzeko.

38. KONPROMISOA:

Gazteek etxebizitza bat lortzeko neurriak.

- Gazteentzako etxebizitza-programa, modu independentean bizi daitezen.
- Alokairuko etxebizitza babestua gazteentzat gordetzea.
- Gaztelagun programarako irispidea erraztea.
- Alternatiba berritzaileak, hala nola cohousinga, erosteko aukera ematen duten alokairuak eta etxebizitza partekatuak.
- Zuzkidura-bizitokietara bideratutako proiektuak edo erabilera-lagapeneko kooperatibak gazteentzat.

39. KONPROMISOA:

Birgaitzea, hiri-berroneratzea eta berrikuntza, hobetuz hala irisgarritasuna eta energia-efizientzia nola eraikuntza jasangarria.

- Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko Renove Plan berria. Lehenetsuna emango zaie irisgarritasunari, efizientzia energetikoari eta kanpo-bizigarritasunari.
- Eraikinen Ikuskarpen Teknikoak bultzatzea (EIT)
- Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko programak, eta enplegua lortzeko aukera ematea gazteei, 55 urtetik gorakoei eta luzaroko langabeei.
- Hiri Zaurgarritasunaren Inbentarioa eguneratzea.
- Dekretu bat onartzea, Etxebizitzaren Legean eremu degradatuari eta lehentasuneko esku-hartzeari buruz egiten den deklarazioa sinplifikatzeko.
- Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak arlo hauetan: eraikuntza jasangarria, ekoberrikuntza eta efizientzia energetikoa.
- Lankidetzaren Lanbide Heziketa dualarekin, etxebizitzak birgaitzeko eta gazteentzako enplegua sortzeko.
- Euskadiko Epe Luzerako Hiri Berroneratzerako Estrategia. Arreta berezia efizientzia energetikoari, osasun-bermeari eta konfortari, edo pobrezia energetikoaren arriskua ezabatzea.
- Etxebizitza berriak ia energia-kontsumorik gabe eraikitzea (NZEB-Nearly Zero Energy building).
- Erakunde kudeatzaile bat sortzea Europako HIROSS4all proiektuaren barruan, Euskadiko Hiri Birgaitze eta Berroneratze politika garatzeko.



TURISMO JASANGARRIA ETA BIKAITASUNEKOA

40. KONPROMISOA:

2030 Turismo Jasangarrirako Euskal Estrategia berria.

- 2030 Turismo Jasangarrirako Euskal Estrategian jasotzea zer erantzun emango zaien:
 - Covid 19ak sortutako krisi-egoerari: jarduera eta enplegua mantentzea.
 - Covid19aren osteko egoerari: sektorearen etorkizuneko erronkei aurre egitea.Ekonomikoki eta sozialki jasangarria den turismoaren aldeko apustua. Sektoreari ikusarazi behar zaio zer garrantzi duen mugikortasun jasangarriak eta kultura- eta natura-ondarea babesteak.
- Euskadiko Baliabide Turistikoen Lurralde Plan sektoriala turismoa garatzeko esparru gisa.

41. KONPROMISOA:

“Euskadi-Basque country”, helmuga turistikoa segurua, iraunkorra eta arduratsua.

- Nazioartean ziurtatutako kudeaketa-sistemak ezartzea sektorea seguruagoa eta jasangarriagoa izan dadin laguntzeko. Enpresen erantzukizun soziala, lan-baldintza duinak bermatzeko.
- Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa ezartzea, sektoreko eragile guztiak hari atxikitzeko, eta Garapen Jasangarriaren Helburuak aplikatzea.
- “Genero-berdintasuneko programak enpresa turistikotan”.
- Sektore turistikoko lanbideak profesionalizatzea eta babestea.

42. KONPROMISOA:

“Euskadi-Basque Country”, bikaintasuneko turismo-helmuga.

- Euskadin turismoa sustatzea gure arlo erakargarrienak nabarmenduz: mendi-ibilaldiak, bide berdeak, enogastronomia edo, gauza berezi gisa, turismoa industrialatzea.
- Murgilketa-errealitateko tresnak sustatzea, nazioarteko turistak Euskadiko paisaiak eta baliabideak esperimintatzeko.
- Jardunbide egokien sistema, sektoreko enpresekin lankidetzan, euskal produktu eta zerbitzu turistikoen kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko.
- Kontsumitzailea babesteko araudia eguneratzea, sektorearekiko lankidetzan.

- Eskaintza turistikoaren bikaintasuna sustatzea, helmuga-barrietatea erakutsiz hauen inguruan:
 - Gastronomia
 - Enologia
 - Landa-eremua
 - Kirolak
 - Kultura
 - Turismo familiarra
 - Erosketei, ongizateari eta negozioari lotutako turismoa

43. KONPROMISOA:

“Euskadi-Basque Country”, turismo-helmuga adimenduna.

- Turismoaren adimen lehiakorreko sistema, eragile publiko eta pribatuekiko lankidetzan.
- Sektoreko egungo egoeraren eta joeren jarraipena egitea erabakiak hartzen lagunduko duen informazioa lortzeko.
- Aztertzea zer ahalmen duen sektoreak digitalizatzeko, eta eraldaketa digitalera egokitzeko plana bultzatzea. Itourbask sareko turismo-bulegoen diseinua eta egokitzapen digitala XXI. menderako.

44. KONPROMISOA:

“Euskadi-Basque Country”, turismo-helmuga lehiakorra.

- 2024 Marketin Turistikoko Plana onestea. Turismoko adituen foroa sustatzea, estrategiak diseinatzeko, eskaria handitzeko eta sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.
- Sektoreko profesionalentzako prestakuntza-plana arlo hauetan: digitalizazioa, negozio-eredu berriak, berrikuntza eta turismo jasangarria.
- Kualifikazio profesionaleko ziurtagirien programa Lanbiderekiko koordinazioan.
- Ekintzaitetzarako eta belaunaldi-erreleborako neurriak.



MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

45. KONPROMISOA:

2030 Merkataritza eta Ostalaritza Estrategia berria.

2021-2025 Merkataritza- eta ostalaritza-plana.

- “2030 Merkataritza eta Ostalaritza Estrategia”, ildo estrategikoak ezartzeko eta sektore horiek suspertzeko. 2021-2025 Plana 2 fasetan egingo da:
 - Pandemiaren amaierara arte: enpresentzako likidezia-neurriak, espazioen segurtasun-protokoloak, tokiko kontsumoa suspertzea ...
 - Pandemiaren ondoren: itzuli beharrik gabeko laguntzak eta abalaturako kredituak enpresa txikientzat, ingurumen-jasangarritasuneko neurriak.

46. KONPROMISOA:

Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea.

- Merkataritzako profesionalen prestakuntza aurreratuko zentroa, konpetentzia eta negozio-eredu berriei erantzuteko.
- Lehiakortasuna hobetzeko kudeaketa-eredu berria
- Merkataritzaren eta ostalaritzaren eraldaketa digitalerako plana
- Sistema bat sektorearen bilakaera aztertzeke, eta ezagutarazteke beste herrialde batzuek dituzten joera eta berrikuntza-jardunbide egokiak.
- Prestakuntza-plana: prestakuntza-eredu berriak eta “e-learning” plataformak konpetentzia digitalak indartzeko.
- Belaunaldi-erreleboa bultzatzea. Gazteak sektorerako erakartzea, kontrataziorako laguntzak emanez.
- Gaikuntza-programak merkataritzako bulego teknikoetako profesionalentzat.

47. KONPROMISOA:

Tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzea.

- Kanpaina, aldundiekin eta udalekin kontsumo-bonuak eskaintzeko tokiko merkataritzaren alde.
- Nabarmentzea bertako produktuak babesten dituzten saltoki eta ostalaritza bereziak.
- Ekonomia hobetzeko edo sustatzeko barrutiak, auzoetako merkataritza suspertzeko.

- Merkataritza-hirigintzari buruzko lan-mahaiak, herriak eta hiriak diseinatzean merkataritza-eremuetarako irisgarritasuna hobetzeko.
- Ekintzailatza eta negozio-eredu berriak babestea, merkataritza-erabilerarako lokal hutsak berreskuratuz.

48. KONPROMISOA:

Erakundeen arteko gobernantza eta aliantzak.

- Merkataritzako mahaia, Eudelen eta beste erakunde batzuen partaidetzarekin, erabakitzeke zer estrategia erabili merkataritza eta ostalaritza sustatzeko.
- Udalekin lankidetzan, identifikatzea zer araudik ez duten efikaziarik, eta behar diren erreformak sustatzea.
- Turismoaren eta merkataritzaren arteko aliantzak. Merkataritza- eta ostalaritza-eskaintza, erakargarri turistiko gisa.
- Sektoreen barruan sortzen den lankidetzaren bultzatzea.



KONTSUMITZAILEA

49. KONPROMISOA:

Kontsumobide kontsumo-molde berrietara egokitzea.

- Kontsumobidek aztertzea zer joera, gatazka eta iruzur dauden kontsumo-mailan, eta prebentzio-neurriak hartzea.
- Informazio- eta prestakuntza-kanpainak egitea kolektibo zaurgarrientzat.
- Kontsumitzaileei informazioa eta prestakuntza ematea eskubide eta betebeharrei eta kontsumo arduratsuan duten zereginari buruz.
- Kontsumo arduratsu eta iraunkorra bultzatzea. Informatzea zer eragin duten produktuek ingurumenean, kontserbazioa, berdintasun soziala eta langileen ongizatea bermatzeko.

50. KONPROMISOA:

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzen dituzten enpresak.

- Kontsumitzaileak babesteko jardunbide egokien kodeak sustatzea, elkarte profesionalen eta enpresaburuaren elkarteekin adostuak. Merkatuko jardunbide desegokien eta ez-betetzeen aurka egitea.
- Enpresen erantzukizuna eta gardentasuna bermatzea, kontsumitzaileen eskubideak errespetatzeko borondatezko mekanismoen bidez.
- Laguntzak, diru-laguntzak, sariak edo enpresa-laguntza emateko, kontuan hartzea kontsumo etikoa eta arduratsua eta borondatezko arbitraje-sistematikiko atxikipena.

51. KONPROMISOA:

Bikaintasuna, kontsumo-gatazkak konpontzean.

- Erreklamazioen kudeaketa eraginkorra, eta Kontsumoko Arbitraje Sistema optimizatzea. Administrazio-prozedurak sinplifikatzea
- Erreklamazioak elektronikoki eta telematikoki izapidetzea. Denek KontsumoNET erabiltzea.
- Bitartekaritza sustatzea kontsumoko arbitrajera jo aurretik.

52. KONPROMISOA:

Lankidetzak eta elkarlan-sareak kontsumo-politiketan.

- Koordinatzea kontsumitzaileen defentsari buruzko organismo guztien lana. Sailarteko eta erakundearteko lankidetzak hobetzea. Akordioak funtsezko eragileekin, eta erantzun homogeenak kontsumo-politiketan.
- Kontsumitzaileen babesa hobetzeko, parte hartzea lankidetzarako eta elkarlanerako nazioarteko sareetan, batez ere Europakoetan.



2. ardatza. PERTSONAK:

Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte- eta kultura-politikak, bizikidetzeta eta giza eskubideak.



HEZKUNTZA SISTEMA

1. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

53. KONPROMISOA:

Hezkuntza-sistema ekitatiboa eta kalitatezkoa sustatzea.

- Euskal eskola publikoaren funtsezko izaera aintzat hartuta, Hezkuntza Legea egitea etorkizuneko erronkei erantzuteko. Hona helburuak:
 - egonkortasuna hobetzea eta euskal hezkuntza-sistema modernizatzea
 - aukera-berdintasuna, pertsona guztiek ikas dezaten
 - eleaniztasuna
 - hezkuntza-sistemaren finantzaketa berrikustea
 - ikastetxeen autonomia handitzea.
 - kalitatezko hezkuntza bermatzea haur guztientzat eta ikastetxe guztietan.
- Ikastetxe publikoei laguntzea, 2 eta 16 urte bitarteko hezkuntza-ibilbidea eskaintzeko.
- Azpiegitura-plana, ikastetxeetako azpiegiturak hobetzeko eta modernizatzeke.

- Planak 200 ekintza baino gehiago proposatzen ditu, eta 5 institutu berri:
 - Orixe, Tolosa
 - Salburua, Gasteiz
 - Barandiaran, Leioa
 - Muskizko Bigarren Hezkuntzako Institutua handitzea
 - Dantzertiren egoitza berria.

54. KONPROMISOA:

Eleaniztasuna, eta euskara hizkuntza nagusi gisa.

- Euskararen eta gaztelaniaren erabilera eta ezagutza indartzea, hezkuntza eleaniztun batean, euskara ardatz hartuta. Ingeleseko prestakuntza hobetzea lehen hezkuntzatik, eta proiektu eleaniztunak ikastetxe guztietara zabaltzea.
- Irakasleak atzerriko hizkuntzetan prestatzea, bereziki ingelesean. Ingelesaren irakaskuntza hedatzeko plana, gutxienez ikasgai bat ingelesez emateko Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrera.

55. KONPROMISOA:

Eskola inklusiboa, ekitatiboa eta berritzailea.

- Hezkuntza goiztiarra bermatzea 0 eta 2 urte bitartean, bereziki familia behartsuenentzat.
- Gizarte-kohesioa sustatzea, bereziki ikasle atzerritar asko dituzten ikastetxeetan.
- Ikasteko aukera-berdintasuna sustatzea irakaskuntza guztietan eta hezkuntzan sartzeko.
- Zailtasunak dituzten haurrentzat, indartzea hala arreta goiztiarreko programak nola ikasle zaurgarrienei laguntzeko eskolaz kanpokoak.
- Eskola-mapa eguneratzea, bermatzeko pertsona guztiak sartzen direla Hezkuntzan, modu orekatuan, ekitatiboan eta gardenean.
- Emaitzak hobetzeko plan bat bultzatzea, prestakuntza-ekimenak sartuz hobetu beharreko arloetan.
- Balioetan oinarritutako hezkuntza, hezkidetza sustatzeko eta eskola-jazarpena ezabatzeko.
- Goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleei zuzendutako hezkuntza-arretarako plana garatzea.
- Hezkuntza-sistema egokitzea hala eraldaketa teknologikora nola digitalera, eskola moderno eta sortzaile bat garatzeko plan hauen bidez:
 - Digitalizazio-plana, ikastetxe guztiek
 - ikaskuntza birtualerako plataforma propioa sor dezaten.
 - Alderdi teknologiko-pedagogikoetan trebatzeko plana.

- Baliabide gutxien dituzten ikasleek teknologia digitalak eskura ditzaten ziurtatzea.
- Hezkuntza-etapa guztietan, karrera zientifiko eta teknologikoak ikasi nahi dituzten neska eta emakumeei laguntzea (STEAM).

56. KONPROMISOA:

Ikastetxe publikoek autonomia handiagoa izatea eta irakasleen papera indartzea.

- Ikastetxe publikoei autonomia ematea, ikasleei, haien familiei eta inguruneari egokitutako proiektuak sor ditzaten.
- Ikastetxe publikoetako zuzendaritzak prestatzea eta profesionalizatzea beren lana sendotzeko, eta administrazio-zereginak kentzea.
- Ikastetxeak euren artean konektatzea esperientziak partekatzeko, eta akordioak egitea ikastetxeen eta administrazioaren artean.
- Irakasleek Hezkuntza Sistemaren eraldaketan duten papera indartzea.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza, eta prestakuntza duala sartzea, Unibertsitatekoa barne.
- Irakaslana profil bakoitzaren kompetentzien arabera ebaluatzea.
- Hezkuntza-laguntzako zerbitzuak ebaluatzea.
- Irakaslanaren garrantzia aitortzea.
- Irakasle eta hezitzaileen behin-behinekotasuna murriztea, egonkortasuna lortzeko.
- Irakasleen % 80k ikastetxe publiko berean jarrai dezaten lortzea.

2. Lanbide Heziketa

57. KONPROMISOA:

Euskal Lanbide Heziketaren gaitasunak hobetzea.

- Lanbide Heziketa integratua eta errendimendu handikoa, laneratzea eta kalitatezko enpleguak lortzeko eta pertsonen kompetentziak hobetzeko.
- Teknologia aplikatuan berritzea eta aldaketa bultzatzea 4.0 industria adimendunerantz.
- Gehiago kolaboratzea Lanbide Heziketaren eta euskal enpresen artean, LH duala bultzatzeko prestakuntza-ziklo guztietan emakume eta gizonen arteko berdintasunean.

- 5.000 euskal enpresa sistema dualean sartzea lortzea.
- TKgunetik, berrikuntza aplikatutako proiektuak egitea enprekin, bien ezagutzak transmititzeko.
- TKNIKA indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren ikerketa eta berrikuntza aplikatuko zentroa gisa.

58. KONPROMISOA:

Etengabeko ikaskuntza Lanbide Heziketarekin.

- Irakaskuntza erdipresentziala eta onlinekoa bultzatzea.
- Titulazio eta konpetentzia berriak eskaintzea 4. industria-iraultzari erantzuteko.
- Lan egiten duten helduen etengabeko ikaskuntza, birziklatze profesionala errazteko.
- Hezkuntza eta enplegurako prestakuntza ematen duten LHko zentroak, inguruko ekoizpen-sektoreari buruzko prestakuntza bereziak eskaintzeko.
- Gizarte- edo lan-eremuan lortzen diren konpetentziak egiaztatzea.
- Zuzendaritza-organo bakarra sortzea LHko politika publiko guztietarako, ikastetxeen eta enpresen arteko prestakuntza koordinatzeko.

59. KONPROMISOA:

Lanbide Heziketa jasangarria eta inklusiboa.

- LH lerrokatzea Euskadiko espezializazio adimentsurako estrategiarekin, gizarte- eta osasun-erronka berriei erantzuteko, hala nola:
 - Bioekonomia
 - Elikadura jasangarria
 - Natura- eta itsas ingurunea
 - Biozeintziak eta Osasuna
 - Ekonomia zirkularra
 - Eraikuntza adimenduna eta eraikuntza jasangarria.
- LH inklusiboagoa izatea lortzea, desgaitasunen bat duten pertsonen eta migranteen lana lor dezaten.

60. KONPROMISOA:

Talentua, emakumeak eta enpresa berriak LHren arloan.

- "Konpetentzia" kontzeptuaren ordez "talentu" kontzeptua erabiltzea, pentsamendu sortzaile batekin, eta Euskadiko LHko talentuaren mapa bat egitea.
- LHn Erasmus beka gehiago ematea, hobetzeko ikasleen kualifikazioa eta esperientzia.

- “Urrats bat” programa, Lanbide Heziketan enpresak sortzeko, eskualdeko garapen-agentziekin lankidetzan.
- Emakumeak LH industrialean sartzeko programa bat garatzea, emakumeen enpleguaren kalitatea hobetzeko eta gizonen eta emakumeen soldata-arrakala murrizteko.

61. KONPROMISOA:

Etorkizunari aurrea hartuko dion lanbide Heziketa.

- Etorkizuneko ikaskuntzen behatoki bat sortzea enpresekin.
- Lanbide Heziketako zentroek berrikuntza eta aldaketa kudea dezaten lortzea.
- Lanbide Heziketako ikasleak euskaraz eta eleaniztasunean prestatzea.
- Ingelesa LHn erreferentziatzeko hizkuntza izan dadin lortzea ikasleek lanpostuak eskuratu ahal izateko eta enpresak nazioartekotzeko.

62. KONPROMISOA:

Euskal Lanbide Heziketa nazioartean sustatzea eta Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren arteko lankidetzaren areagotzea.

- Europako erakundeekin lankidetzan aritzea Lanbide Heziketan nazioarteko ikerketa-proiektuak sortzeko.
- Euskal LHren eskaintza beste herrialde batzuetan ezagutaraztea.
- LHren eta Unibertsitatearen arteko lankidetzaren bultzatzea, baita bietan integratutako ikasketak dituzten titulazioak ere.

63. KONPROMISOA:

Lanbide Heziketako Plan berria.

- Giza garapen jasangarria bultzatzea, pertsonak prestatzeko gaitasun teknologikoetan eta ingurumenekoetan.
- EAEko ETEei eta mikroETEei laguntzea berrikuntza aplikatuan eta sistema adimendunetan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plan Estrategikoaren arabera.
- Adimenaren, jasangarritasunaren eta konplexutasunaren arloetako ekintzak.

3. Unibertsitatea eta Ikerketa

64. KONPROMISOA:

Euskal Unibertsitate-ekosistema.

- Zientziaren eta unibertsitatearen aldeko ituna, kontuan hartuko dituen Europako eredu aurreratuak, eta euskal unibertsitate-ekosistema indartuko duena.
- Talentua eta ezagutza sortzeko unibertsitate-sistema bat bultzatzea eta Euskadiren erronka teknologiko, digital, ekonomiko eta sozialari erantzutea.

65. KONPROMISOA:

Unibertsitate Sistemaren Plan berria.

- Unibertsitate plan berriaren baliabide publikoak handitzea eta baliabide pribatuak lortzea, lagunduko dutenak prestakuntza eta ikerketan hobetzen eta ezagutza transmititzen, Europako herrialde aurreratuenen mailan egoteko.

66. KONPROMISOA:

Ekitatea, berdintasuna eta euskara euskal unibertsitate-ekosisteman.

- Beken sistema indartzea, lehentasuna emanaz ikasle ahulenei eta aukera-berdintasunari.
- Ziurtatzea gizon-emakumeen arteko berdintasuna bermatuko dela unibertsitate-prestakuntzan eta ikerketa zientifikoan, eta STEAM Euskadi estrategiari Unibertsitateak laguntzea.
- Euskarazko prestakuntza eta ikerketa.
- Online prestakuntza-programak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.
- Titulazio eleaniztunak graduatan eta graduondoetan.

67. KONPROMISOA:

Unibertsitatea+Enpresa Estrategia, unibertsitate-prestakuntza duala eta LH+Unibertsitatea.

- Prestakuntza dualeko 50 titulazio eskaintzea.
- 4Gune klusterraren lana indartzea.
- Kultura- eta sormen-industrien unibertsitate-kluster berri bat sortzea.
- Baterako titulazio gehiago eskaintzea LHren eta unibertsitateen artean.
- Hasierako eta etengabeko prestakuntza irakasleentzat, prestakuntza dualeko eta elkarlaneko ikerketako programekin.

68. KONPROMISOA:

Politika zientifikoa eta bikaintasuneko ikerketa.

- Unibertsitatean, urtean batez beste % 6 gehiago inbertitzea ikerketan eta garapenean.
- Euskal unibertsitate-sistemak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plan Estrategiko berrian parte hartuko du. Europako ikerketa-proiektuak txertatzea eta bikaintasuneko ikerketa-taldeen jarduera sustatzea.
- Prestakuntza-programak indartzea doktoretza aurreko eta ondoko ikertzaileentzat, eta euskal politika zientifikoaren strategiara egokitzea programa horiek. Ikerbasquek bikaintasuneko ikertzaileak erakartzea bultzatuko du, eta lankidetzak sustatuko ditu bikaintasuneko ikerketa-taldeen eta Basque Excellence Research Centers-en artean (BERCS).

69. KONPROMISOA:

Ospe handiko zientzialari eta ikertzaile gehiago.

- Bikaintasuneko 100 ikertzaile berri gehitzea Ikerbasqueren Research fellows programarekin.
- Emakumeen bokazio zientifikoak eta parte-hartzea eta lidergoa sustatzea ikerketa zientifikoko proiektuetan.

70. KONPROMISOA:

Euskal unibertsitate-ekosistema nazioartekotzea.

- Lankidetzan aritzea euskal unibertsitate-sistemaren eta Europako beste unibertsitate-sistema bikain batzuen artean. Bereziki, Euskadi, Nafarroa eta Akitania Berriaren artean.
- Atzerrian ikasteko ikasleei ematen zaizkien beka indartzea.
- Nazioarteko aipamena duten doktoretza-tesiak bultzatzea.
- Master gehiago eskaintzea nazioarteko ikasleak erakartzeko.
- Legegintzaldia amaitu baino lehen, nazioarteko aipamena duten 40 titulazio eskaintzea, gutxienez, eta irakasleen heren bat gaitzea eskolak emateko nazioarteko titulazioetan.



OSASUNA

71. KONPROMISOA:

Lehen mailako arreta, asistentzia-integrazioarekin.

- Hobetzea osasun publikoko bitartekoen eta osasun-arretako zerbitzuen arteko integrazioa.
- 2021-2028 Osasun Plan berria onestea.
- Osasun Publikoaren Legea, honetarako:
 - alerta eta erantzun azkarreko sistemak indartzea, gizartearen osasun- arriskuak prebenitzeko, babesteko eta detektatzeko.
 - Osasun Publikoko zerbitzu egokiak eskaintzea, osasuna mehatxatzen duten egoera berrietarako behar diren teknologia eta ikerketekin.
- Pertsonal mediko eta erizain egoiliar gehiago izatea. Gainera, medikuei eta erizainei lan burokratikoak eta administratiboak kentzea.
- Teknologia berriak izatea, Covid-19ak kutsatutakoak detektatzeko eta haien segimendua egiteko, lehen mailako arretatik test gehiago eginez.
- Azpiegitura berriak irekitzea eta, behar badute, lehen mailako arretako zentroak eraberritzea.
- Osasun Sailak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailak gobernantza soziosanitarioa arautuko dute, foru-aldundiekin eta udalekin batera.

72. KONPROMISOA:

Osasun-instalazio eta -ekipamenduak hobetzea.

- Osasun-instalazioak eta -ekipoak hobetzeko eta modernizatzeko plana, honako hauek berritzeko eta zabaltzeko:
 - azpiegitura sanitarioak
 - X izpien eta anesthesiaren ekipoak
 - bloke kirurgikoak
 - endoskopia, hemodinamika eta erradioterapiako gelak
 - ospitaleetako beste ekipamendu mediko eta instalazio batzuk.
- Gainera, bereizmen handiko zentro bat eraikiko da Tolosan.

73. KONPROMISOA:

Osasun-ikerketako ekosistema propioa eta osasun-arloko enpresak bultzatzea.

- Osasun Ikerketako Plan Estrategiko berria.
- Osasun-arloko ikertzaileen estatutu berria, harremanak ahalbidetzeko haien eta sistema zientifiko-teknologikoaren eta enpresen artean.
- Osasuneko I+G entitateak hobeto koordinatzea, haien egitura sinplifikatzea eta estatuko eta nazioarteko aliantzak sortzea.
- Laguntza-programa bat abian jartzea, ekoizpen zientifikorako eta emakumeek osasun-ikerketan parte hartzeko.
- Kluster biosanitarioa sustatzea.
- Euskal enpresen ekipamendu, material eta osasun-zerbitzuen ekoizpena hobetzea, behar bezala erantzuteko euskal osasun-sistemaren beharrei.

74. KONPROMISOA:

Osasun-arloko profesional gehiago eta hobeak.

- Enplegu publikoko 4.000 plaza deitzea, Osakidetzako plantilla igotzeko 2020tik 2024ra, eta hautaketa- eta sustapen-eredu berriak aplikatzea.
- Osakidetzako lanpostuen zerrenda berrikustea lanbide-kategoria berriak gehitzeko, eta langileak falta diren tokietan langile gehiago jartzea.
- Prestakuntza espezifikoa medikuentzat eta erizaintzat. Bereziki, gaixotasun infekziosoak detektatzeko eta segimendua eta tratamendua egiteko.
- Gai Epidemiologikoetarako Batzorde Iraunkor bat sortzea, Espainiako Gobernuarekin eta Europar Batasunarekin koordinatuta.
- Hobeto koordinatzea osasun publikoko bitartekoak eta lehen mailako arretako zerbitzu guztiak.
- Osasun-langileentzat bultzatzea hala mugikortasun-sistema ireki bat nola bizitza pertsonala, lana eta familia kontziliatzeko programak, ordutegi malguak eta telelana ezarriz.

75. KONPROMISOA:

Osasuna hurbilagoa eta berdina izatea pertsona guztientzat.

- Pazienteari informazio-, segimendu- eta kontrol- protokolo bat eskaintzea, autonomia izan dadin.
- Itxaron-zerrendak hobetzeko plana garatzea.
- Osasunaren Behatokia, biztanleriari buruzko informazio guztia izateko; bertan, area berezitu bat egongo da, Euskadiko suizidioaren segimendua, analisia eta prebentzioa egiteko.
- Osasun mentaleko estrategia berri bat diseinatzea.
- Bizitzaren amaierako arretari buruzko 11/2016 Legea betetzen den ebaluatzea.
- Plan bat garatzea COVID-19ari erantzun beharragatik atzerapenak jasan dituzten gaixoak berreskuratzeko.
- Adikzio berriak prebenitzea eta haien tratamendua sustatzea.
- Pazienteei harreman hurbilagoa eskaintzea, telelaguntzako eta e-osasuneko programekin. Telemedikuntzako eta adimen artifizialeko aplikazio berriak sortzea, osasun-zerbitzua gero eta pertsonalizatuagoa izateko.



GIZARTE POLITIKAK ETA GAZTERIA

1. Gizarteratzea

76. KONPROMISOA:

Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen arreta emateko sareak.

- Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen arreta bermatzeko estrategia integrala.
- Lurralde bakoitzeko gizarte-zerbitzuen sareak zabaltzea, modu integratuan eta gizarteratzeko egokituta

77. KONPROMISOA:

Arreta ematea zahurgarritasun- eta babesgabetasun-egoeran daudenei.

- Hauentzako prebentzioa eta laguntza sendotzea:
 - etxerik gabeko pertsonak
 - etxeko argia edo gasa ordaindu ezin duten pertsonak.
 - adinekoak, gazteak, haurrak,
 - desgaitasunen bat izanik pobrezia-egoeran dauden pertsonak.

Bereziki, diskriminazio-egoerak jasaten dituzten pertsonak, bakarrik edo gizartearen laguntzarik gabe daudenak.
- Haurren pobrezia-aren aurkako programa bat garatzea, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta hobetzea seme-alabak dituzten familientzat.
- Diskriminazioaren Behatokia sortzea.

2. Gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen Euskal Sistema

78. KONPROMISOA:

Gizarte-zerbitzuen euskal sistema.

- Gizarte-zerbitzuen 2. Plan estrategikoa egitea eta abian jartzea, eta gizarte-zerbitzuen erakundearteko funtsa sendotzea, herritarrei prestazio eta zerbitzu guztiak bermatzeko.
- Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren katalogoa planifikatzea, koordinatzea eta garatzea.

Gizarte-zerbitzuen berrikuntzaren, kohesioaren eta kalitatearen alde lan egiten duen erakundearteko funtsak hauei lotuta egon behar du:

- ikerketa
 - teknologia
 - sortzen diren zainketa-lanpostu berriak
 - Europar Batasuneko proiektuak.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Kartera amaitzea.
Bereziki, adinekoen arretan:
 - zaintza
 - laguntza ematea
 - ostatu ematea
 - Adinekoentzako egoitza-zentroak arautzen dituen Dekretua egokitzea, baldintza eta gizarte-zerbitzu egonkorrak eta egokiak bermatzeko.

79. KONPROMISOA:

Gizarte- eta komunitate-garapena.

- Hurbilen dauden zerbitzuak indartzea, eredu komunitarioan eta kalitatezko boluntarioran oinarrituta, erabiltzaileen parte-hartzearekin.
- Gizarteratzeko laguntzak antolatzeke eta hobetzeko programa, eta erreferentziazko profesionalak esleitzea premia zehatzen arabera.
- Arreta-piramidearen inbertsioaren jarraipena egitea eta estrategia integral bat planifikatzea. Bereziki, bizitza autonomo betea ziurtatzea beren ohiko etxebizitzan bizi diren pertsonen.

80. KONPROMISOA:

Berrikuntza, ebaluazioa eta kalitatea gizarte-zerbitzuetan.

- Gizarte-zerbitzuetan gizarte-berrikuntzako, ikerketako eta garapeneko sistema bat sortzea.
- Erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak ebaluatzea, bereziki, hartzaileei eta haien familiei ematen zaizkienak. Ebaluatzea, halaber, nola sistematizatzen eta transmititzen den ezagutza.
- Arrakala digitala murriztea.
- Teknologia eta aplikazio digital berriak lortzeko, garatzeko eta ezartzeko proiektuak, honetarako:
 - arreta etxean ematea
 - erabiltzaileak zaintzea
 - erabiltzaileak eta haien senideak zaintzea

3. Adinekoak

81. KONPROMISOA:

Adinekoen zahartze aktiboa, autonomia pertsonala, parte-hartze soziala eta bizitza betea eta osasungarria.

- Euskadi osora hedatzea adineko pertsonekin lagunkoiak diren herri eta hirien sarea: "Euskadi Lagunkoia Sustraietatik".
- Zahartze aktibo eta osasuntsuko estrategia, eta "Euskadi Lagunkoia sustraietatik" programan sartuta dauden adinekoen talentuaren garapena, bizitza betea eta parte-hartze soziala sustatzea.
- Proiektu pilotuak, adinekoek ikas dezaten Internet erabiltzen eta gazteekin belaunaldien arteko jarduerak egiten.
- Adinekoak ahalduntzea interesatzen zaizkien gaietan, adibidez: oinarrizko finantza-prestakuntza, jaraunspenak, bizi-testamentua ...
- Zahartze aktiborako euskal estrategia onartzea.
- Programa berri bat sustatzea, hirugarren adinerako trantsizioa prestatzeko.
- Pentsiodun zahargarrienei gutxieneko diru-sarrera bat bermatzea.
- Adinekoen talentua sustatzea, baita politika publiko guztietan parte har dezaten ere.
- Belaunaldien arteko programak eta jarduerak, adinekoen eta gazteen arteko harremanak eta elkartasuna sortzeko.
- Hobetzea adineko pertsonen etxebizitzaren irisgarritasuna eta energia-efizientzia, etxebizitza duin eta egoki batean bizi daitezen.

82. KONPROMISOA:

Bakardade-egoeran dauden adinekoak laguntzea.

- Nahi gabeko bakardadearen aurka borrokatzeko erakundearteko plana, adinekoentzako etxeko bisitak indartu beharra jasoko duena.
- Telelaguntza-zerbitzua zabaltzea, lehendabizi 80 urtetik gorakoentzat, eta, gero, 65 urtetik gorakoentzat. Arreta profesionaleko ildo bat sortzea bakarrik dauden pertsonentzat.
- Gizarte-boluntariorako eta lehen mailako elkartasuneko programa espezifikoak, pobrezia-, mendetasun- edo gaixotasun-egoerak detektatzeko.

83. KONPROMISOA:

Kalitatezko laguntza eta etxeko zein ingurune hurbileko arreta adinekoentzat.

- Adinekoei etxean ematen zaien arreta hobetzea.
- Zaintzaileentzako atsedeen-programak indartzea.
- Arreta soziosanitarioko eredu integral berria, beren etxeetan edo egoitzetan bizi diren adinekoentzat. Ereditu hori osasun-laguntzako lehen mailako sarearekin koordinatuko da.
- Zaintzaileei laguntzeko euskal estrategia bat abian jartzea.
- Zaintzaileen Estatutua, bultzatzeko gizonak erantzunkideak izan daitezzen adineko senideen zaintzan, sentsibilizazioaren, kontziliazioaren eta trebakuntzaren bidez.
- Adinekoen arretarako bulegoak sortzea hiru lurralde historikoetan.

84. KONPROMISOA:

Adinekoen jarduera ekonomikoa eta gizarte-berrikuntza sustatzea.

- "Silver Economy" edo zilarrezko ekonomia bultzatzeko programa bat egitea hiru foru-aldundiekin eta udalekin batera.
- Adinekoen arretan, gizarte-berrikuntzako lerroak indartzea:
 - Adinberri Gipuzkoan
 - Nagusi Intelligence Center Bizkaian
 - eta zahartze aktiboari buruzko Berrikuntza-zentroa Araban
- Enpresa-ekimenak eta gizarte-berrikuntza bultzatzea "Silver economy" delakoaren eremuan, lerro hori indartuz egungo deialdietan eta laguntza-programetan.
- Ikerketa aplikatuko proiektuak bultzatzea adinekoentzako produktuetan eta zerbitzuetan.
- Adinekoei praktika kulturalak eta bizitza beteagoa eskaintzea.

4. Familiak eta haurrak

85. KONPROMISOA:

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko eta jaiotze-tasa sustatzeko estrategia integrala.

- Euskadirako familia-politika integratua eta koherentea bultzatzea, aldundiekin eta udalekin lankidetzan.
- Seme-alabengatiko laguntzak handitzea eta administrazio-kudeaketa sinplifikatzea.

- Foru-aldundiekin batera gogoeta egitea seme-alabengatiko kenkari fiskalak zabaltzeari buruz, eta progresibotasun handiagoko elementuak gehitzea familien zerga-tratamenduan.
- Sektore pribatuan, gutxienez 16 asteko aitatasun- eta amatasun-baimen berberak eta besterenezinak sustatzea.
- Kontziliazio erantzunkidea bultzatzea lan-bizitzaren eta aitatasun positiboaren kontziliazioa sustatzen duten neurriekin. Emakumeen eta gizonen arteko etxeko eta zaintza lanak modu ekitatiboan egin daitezten lortzea.
- Zainketen ekonomiari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea gizartean eta ekonomian zainketek duten garrantzia ezagutarazteko.

86. KONPROMISOA:

Haurren babes-, prebentzio- eta sustapen-plan integrala.

- Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko Legea, haurrak eta nerabeak babesteko, prebenitzeko eta sustatzeko sistema bat bultzatzeko.
- Erakundearteko protokolo bat onestea, haurren aurkako indarkeria goiz detektatzeko, batez ere sexu-abusu eta -esplotazioari dagokienez, eta eraginkortasunez esku hartzeko.
- Hirugarren sektoreko antolakundeen eta administrazioaren arteko lankidetzak bultzatzea.
- Hezkuntzan, txiki-txikitatik sartzeko hezkuntza afektibo-sexuala eta prebentzioa eta Interneten erabilera segurua.

5. Migrazioa

87. KONPROMISOA:

Migratzaileen harrera eta integrazioa bultzatzea.

- Biztanleria migratzailea integratzeko eredia indartzea.
- Biztanleria migratzailearen integrazio egokia lortzea lan eginez elkarrekin eta euskal gizartearekin.
- "Migratzailearen Euskal Itun Soziala" garatzea eta ezagutaraztea.
- "Share Proposamena" bultzatzea Euskadin, Estatuan eta Europan, erantzunkidetasun-printzipioa aplikatzeko.
- Kultura-harrerarako planak sortzea migratzaileentzat, eta kultura-edukiak eskaintzea Euskadiko Liburutegi Publikoen Saretik.

88. KONPROMISOA:

Migratzaileak hartzeko estrategia globala.

- Onartzea eta abian jartzea Euskadira iristen diren migratzaileei harrera egiteko euskal eredia, inplikatura dauden gizarte-erakunde eta -eragileekin lankidetzan arituz eta Euskadiko Herritar Immigratzaileen Gizarteratzerako eta Parte-hartze Sozialerako Foroaren bidez.
- Esperientzia pilotuak sustatzea migratzaileen jatorrizko herrialdeetan, migrazio-fluxuen kudeaketan laguntzeko.
- Nabarmentzea migratzaileek Euskadin lan-merkatuari laguntzen diotela eta aberastasuna sortzen dutela.

89. KONPROMISOA:

Asilo-politikaren euskal eredia.

- Akordioa Espainiako Gobernuarekin, Euskadi ardura dadin nazioarteko babesa eskatzen duten errefuxiatuak hartzeko eta integrazteko politikez.
- Harrera- eta integrazio-eredu propioa definitzea, non babes komunitarioko formulak berebiziko garrantzia edukiko duen.
- Indartzea asiloaren eremuan nola jokatu koordinatzen duen Erakundearteko Mahai Soziala.

90. KONPROMISOA:

Migratzaile zaurgarrienei estaldura eta laguntza ematea.

- Erakundearteko lankidetzak, bakarrik dauden haur migratzaileen babesa ziurtatzeko, helduaroan ere gizarteratzeko ibilbideak ezarritik.
- Adingabe eta gazte migratzaile zaurgarrienen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzea.
- Espainiako Gobernuari proposatzea migratzaileei lan-baimena erraz dakiela 16 urte betetzen dituztenean, gainerako nerabeen baldintza berberetan.
- Urtero eguneratzea iragaitzazko migratzaileei arreta humanitarioa emateko Kontingentzia Plana.
- Laguntza-azpiegitura balioaniztunen plan bat egitea, erantzuteko migrazio-errealitate desberdinek sortzen dituzten harrera-premiei.

6. Gazteak

91. KONPROMISOA:

Gazteria-politika integrala.

- Gazteriaren Legea onestea, gazte-ikuspegia txertatuko duena politika publiko guztietan, helburu nagusitzat hartuta gazteen laneratzea.

92. KONPROMISOA:

Gazteen emantzipaziorako estrategia.

- Gazteen emantzipaziorako estrategia bultzatzea eta koordinatzea, gazteen enplegu-plana egiteko eta abian jartzeko, baita etxebizitza eskuratzea errazteko ere.



EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

93. KONPROMISOA:

Indarkeria matxista ezabatzea eta berdintasuneko gizartea eraikitzea.

- Berdintasunerako Lege berria, indarkeria matxista saihestu eta haren aurka borrokatzeko eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko.
- Herritarren itun soziala, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka.
- Erakundearteko akordioa hobetzea, arreta hobea emateko indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei, arreta integrala, doakoa eta kalitatezkoa eskainiz biktimei eta haien seme-alabei.
- Tresna hobek indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak detektatzeko eta esku hartzeko.
- Leihatila bakarra, indarkeria matxistaren biktimei arreta eta babesa emateko espedienteak kudeatzeko, eta ekintza-programa pertsonalizatuak egokitzea.
- Indartzea hala dirulaguntzen programa nola gizarteratze eta laneratzekoak, biktimek eta haien seme-alabek indarkeriatik libre egongo den bititza berri bat has dezaten.

94. KONPROMISOA:

Soldata-arrakalaren aurkako talka-plana.

- Ziurtatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak egiten direla 50 langiletik gorako enpresetan, eta berdintasun-planak egin daitezen sustatzea 50 langile baino gutxiagokoetan.
- Lan-ikuskaritzan, berdintasun-unitateak indartzea.
- Itun sozial eta politikoa gizarte-eragileekin batera, lan-ordutegiak antolatzeko.
- Enpresa-kultura berri bat sustatzea, kontziliatzeko bititza pertsonala, lana eta familia.
- Emakumeen enplegurako aukerak hobetzea, emakume gazteen artean zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikako ikasketak bultzatuz.
- Erraztea emakumeak etorkizunean gehien beharko diren lanbideetan integra daitezen.
- Zainketak berdintasun-politiken erdian jartzea, lortzeko emakumeek eta gizonek erantzunkidetasun bera izan dezaten euren familiarrak zaintzeko orduan.

95. KONPROMISOA:

Balioak aldatzea eta emakumeak eta neskak ahalduntzea.

- Berdintasunean eta hezkidetzan heztea txiki-txikitatik, hezkidetzarako 2. plana ezarriz, baita berdintasun-programak ere, hala nola Nahiko programa, 4 urtetik beherakoentzako material berriak sortzen baititu.
- Bultzatzea emakumeen eta feminismoaren elkartegintza-mugimendua, ahalduntzeko eta balioak aldatzeko.
- Emakumeek dituzten premiei hobeto erantzutea interseksionalitatearen bidez.
- Gizonduz programa, gizonak berdintasunean benetan inplika daitezen lortzeko.
- Emakumeek autonomia ekonomikoa izateko lan-munduan sar daitezen sustatzea, batez ere orain arte gizonek bakarrik egin izan dituzten lanetan.

96. KONPROMISOA:

Sexu-orientazioagatik diskriminazioaren aurkako politikak.

- Dibertsitate-berdintasunari eta sexu-orientazioaren ondoriozko bereizkeriaren aurkako borrokari buruzko lege integrala.
- Aldatzea ekainaren 28ko 14/2012 Legea, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Honako hauekin egindako akordioekin jarraitzea: transexualen eta transgeneroen elkarrekin eta adingabe transexualen familien elkarrekin.
- Hezkuntzaren esparruan, sexu- eta familia-aniztasuna onartzea sustatzea, hurrek beren nortasuna eta sexu-orientazioa askatasunez eta bereizkeriarik gabe gara dezaten.
- "Berdindu Programa" indartzea, diskriminazio-egoerak jasaten dituzten LGTBI pertsonak babesteko.
- Beren sexu-orientazioagatik osasun-kalteak sortzen dizkieten aurreiritziak eta bestelako gizarte-faktoreak murrizteko programak.



JUSTIZIA

97. KONPROMISOA:

Sistema judicial moderna.

- Justiziaren Plan Estrategiko bat onestea, pertsonengan zentratutako justizia arina, eraginkorra eta digitalizatua eraikitzeko.
- Egungo bulego judizialak ebaluatzea eta haien ezarpena bultzatzea.
- Azpiegitura judizialen programa integral bat sortzea, honako hauek kontuan hartuko dituena:
 - energiaren erabilera efizientea
 - mugikortasun jasagarria
 - Irisgarritasun unibertsala.
- Justizia Administrazioako Langileen lan-baldintzei buruzko 4. akordioa, balioesteko:
 - lanpostuak
 - behin-behinekotasun tasak
 - prestakuntza-planak eta soldatak.
- Modernizatzea Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea.
- Sistema judiziala ezagutaraztea, "Justizian heztea" programarekin.

98. KONPROMISOA:

Justizia arin, eraginkor eta digitalizatuagoa.

- Justizia digitaleko plan berri bat, honetarako:
 - epaitegi eta auzitegien digitalizazio integrala lortzea.
 - espediente judizial elektronikoa bukatzea.
 - izapide digitalak bultzatzea egoitza judizial elektronikoaren bidez.
 - bideokonferentzien bidezko jarduketak bultzatzea.
- Bake-epaitegietan, hurbileko justizia bultzatzea, baliabide material eta giza baliabide gehiagorekin.
- "Familiarteko topaguneak" zabaltzea eta deskontzentratzea, udalekin hitzarmenak sinatuz.
- Udalekin eta justiziako langileekin, hausnartzea Euskadik gaur egun duen lurralde- eta barruti-egituraren inguruan.

99. KONPROMISOA:

Pertsonengan zentratutako Justizia.

- Zerbitzu-kartak garatzea Justiziari laguntzeko zerbitzuen berri emateko.
- Gatazkak ebazteko bestelako bitartekoak sustatzeko eta finkatzeko plana justizia errestauratiboaren zerbitzua indartzeko.
- Bitartekaritza judiziala doakoa dela ziurtatzea.
- Justizia errestauratiboa indartzea zigor- eta familia-esparruetan.
- Negoziazioa edo bitartekaritza judiziala bultzatzea eremu hauetako epaiketetan:
 - administrazioarekiko auzi-errekurtsua
 - lan-arloa
 - arlo zibila
- Hizkuntza normalizatzeko Plana, herritarrek Justizian euskaraz komunikatu ahal izateko.
- Gazte Justiziaren V. Plana, gazteen berrerortze-tasa % 15etik behera murrizteko; gazte-justiziako euskal zerbitzu bat, gatazkak konpontzeko bitartekari, adiskidetzaille eta konpontzaile izango dena.
- Behar beste langile izatea, erantzuteko zigor-legearekin gatazka duten gazteei ezartzen zaizkien neurri judizial guztiak.
- Kanpoko profesionalekin aldian-aldian berrikustea nola funtzionatzen duten adingabe arau-hausleak barneratzen dituzten ikastetxeek eta haietan lan egiten duten langileek.
- Areagotzea desagertutako pertsonen arloko lankidetzaren, ministerio fiskalaren eta polizia judizialaren artekoa.
- Jarduera judiziala suspertzeko jarduketa-plana Covid-19ren ondorioei aurre egiteko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa-plana, bereziki indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko.
- Indartzea auzitegiko balorazio integralerako unitateak eta talde psikosozialak, indarkeria matxistaren arriskua goiz detektatzeko eta adingabeen egoera eraginkortasunez baloratzeko.
- Justizia-zerbitzu guztiak egokitzea Istanbulgo Hitzarmenean emakumearen aurkako indarkeriaz egindako definiziora.
- Epaitegietan, atal espezifiko bat sortzea arreta emateko indarkeria matxistaren biktimei.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa-plana, alderdi hauek indartzeko:
 - erakundearteko koordinazioa
 - prestakuntza ematea emakumeen kontrako indarkeriaren epaitegietako langileei.
 - instalazio egokiak
 - biktimei informazioa, arreta eta laguntza emateko zerbitzuak.



BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

100. KONPROMISOA:

Biktimen eskubideak defendatzea.

- Gure konpromisoa berrestea biktima guztiek egiarako, justiziarako, memoriarako, erreparaziorako eta elkartasunerako dituzten eskubideekiko.
- 4/2008 Euskal Legea, Terrorismoaren Biktimei Errekonozimendua eta Erreparazioa egitekoa, eta Batera Proiektua, biktimak eta gizartea bizikidetzarako eta etorkizunerako elkartzeko.
- 12/2016 Legea, botere-abusuak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.
- Erabat argitu ez diren kasuak nabarmentzea
Argitzen ez diren bitartean, errekonozimendu-ahalegin gehigarria mereziko dute.

101. KONPROMISOA:

Terrorismoaren eta indarkeriaren iraganaren memoria kritikoa.

- Bizikidetzako gizarte-proiektu bat bultzatzea, oinarri hauekin:
 - Ez legitimatzea, konpentsatzea edo gutxiestea iraganeko terrorismoa edo indarkeria.
 - Aitortzea arrazoi politikoengatiko terrorismoa eta indarkeria bidegabeak izan direla.
- Gogora 2021-24 Jarduketa Plana, erakunde horren zabalkunde-, ikerketa- eta kudeaketa-baliabideak finkatzeko.
- Erakusketak batzea: Gogora Institutuarena, Gernikako bonbardaketaren Museoarena eta martxoaren 3ko biktimena.
- Bizikidetzarako itun sozial bat garatzea, arrazoi politikoengatik ez justifikatzeko ez terrorismoa edo beste edozein eskubide-urraketa.
- Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onestea.

102. KONPROMISOA:

Espetxe-politika eta presoen gizarteratzea.

- Espetxe-politika bultzatzea, lege-printzipio hauekin:
 - indibidualtasuna
 - humanismoa
 - eragindako kaltearen aitortzea.
 - gizarteratzea.

Espainiako Gobernuarekin hitz egitea eta lankidetzan aritzea, honetarako:

- presoek beharrik ez diren asetzeko
- pertsona horiek beren familia-inguruetik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzea.
- Transferentzia, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeak kudeatzeko, Gernikako Estatutuaren eta 2017an egiteke dauden transferentziei buruzko txostenaren arabera.

103. KONPROMISOA:

Giza eskubideen politikak.

- Hezkuntzan, giza eskubideen aldeko programak sustatzea, Hezkuntza eta Giza Eskubideen Programaren bidez.
- "Eskura" indartzea, giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideen Zentroa (Aiete).
- Kultu eta Erlijio Aniztasunaren Leku eta Zentroen Legea, Euskadiko erlijio-aniztasuna modu positiboan kudeatzeko.
- EAEko Erljioen arteko Kontseilua sortzea.
- "ADOS Batzordea"ren Jarduera Programa sortzea.
- Uztartu gizarte- eta hezkuntza-programa, erradikalizazio biolentzia prebenitzeko.
- Nazioarteko bakeari laguntzeko euskal programa.
- Giza eskubideen defendatzaileen programak babesten jarraitzea.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan aritzea Etikari programan giza eskubideen inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziatzea.
- Europako hirietarako hezkuntza-bisitak gazteentzat, hain justu gerrak edo indarkeriako beste esperientzia traumatiko batzuek markatutakoetara.



GARAPENERAKO LANKIDETZA

104. KONPROMISOA:

Herritarren, erakundeen eta gizarte-antolakundeen arteko lankidetzaren ireki eta partekatua.

- Indartzea euskal lankidetzaren eragile tradizionalen gaitasunak eta garapen-eragile berrien arteko aliantzak

105. KONPROMISOA:

Garapenerako politikak bultzatzea.

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Lege berria giza eskubideetan eta gizon-emakumeen arteko berdintasunean oinarritutako politika koherenteak egiteko.

Garapenerako Lankidetzaren V. Gida Plana, honako ardatz hauekin:

- Afrika
- garapen-politika koherenteak
- Eusko Jaurlaritzako sailek parte hartzea lankidetzaren ekimenetan.
- erakundearteko koordinazioa, eta, bereziki, Euskal Funtsarekiko aliantza.

106. KONPROMISOA:

Gizartea eraldatzeko hezkuntza.

- 2030 HABIA estrategia finkatzea.

107. KONPROMISOA:

Garapenerako lankidetzaren politika berritzaile eta kalitatezkoak.

- Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzia sustatzea, Europa mailako lankidetzaren deszentralizatuaren eredu propio gisa.



SEGURTASUNA

108. KONPROMISOA:

Segurtasun hurbilagoa eta gardenagoa, pertsonen zerbitzura dagoena.

- Biztanleekin elkartzeko sistema bat antolatzea haien kezkek ezagutzeko eta segurtasunari buruz dituzten premiei erantzuteko.
- Herritarrekiko eta herritarren elkarrekin komunikazioa indartzea, informazioa denbora errealean kontrastatuta eta sare sozialetako albiste faltsurik gabe.

109. KONPROMISOA:

Prebentzio-segurtasuna.

- Prebentzio-programa espezifikoak, segurtasun-arriskutik babesteko kolektibo sentikorrenak, batez ere droga-kontsumitzaileak eta joko-adikzioa eta beste adikzio batzuk dituztenak.
- Honako hauek saihesteko programak:
 - indarkeria erradikalizatzea, hala nola xenofobia-adierazpenak, arrazakeria edo bereizkeria sinesmen edo iritziengatik.
 - pertsonak atzeman eta fanatismo totalitarioaren gorrotoan hezteak, batez ere, propaganda jihadistarekiko ahulenak diren kolektiboetan.
- Emakumeen aurkako arrisku-egoerak aurretik detektatzeko eta saihesteko programak.
- Interneten modu seguruan erabiltzea sustatzea, batez ere haurtzaroan eta nerabezeroan.
- Prebentzio-sistema bat, azpiegitura sentikorrak babesteko zibersegurtasun gorabeheren aurrean.
- Ikerketa-sistema egokitzea eta espezialista-taldeak osatzea delitu mota berriak saihesteko, hala nola:
 - ingurumen-delituak
 - pertsonen salerosketa-sareak
 - Internet bidezko finantza-delituak.

110. KONPROMISOA:

Segurtasun berritzailea.

- Teknologia-tresna berriak erabiltzea pertsonak gehiago babesteko:
 - sistema informatikoak eta komunikazioak eguneratzea.
 - agenteei banakako kamerak ematea haien jarduketan garrantzitasuna bermatzeko.
 - delitu-egitateei buruzko frogak aurkezpena hobetzea.
- Ustelkeria-, ekonomia- eta zerga-delituak jazartzen dituzten Ertzaintzako unitateen baliabideak gehitzea.
- Kontzientziazio-programak sustatzea errepideetako segurtasuna bermatzeko, eta trafikoaren kudeaketa hobetzea, bat etorriaz Europar Batasunarekin.

111. KONPROMISOA:

Segurtasun integrala eta interkonektatua.

- 2025eko Segurtasun Publikoko Plan berria, segurtasunean parte hartzen duten organo guztien esku-hartzerako eta koordinaziorako.
- Lanean jarraitzea hala Ertzaintza interkonekzionatzeko nola datuak eta informazioa Estatuko eta nazioarteko beste polizia batzuekin trukatzeko.
- Gehiago kolaboratzea tokiko polizien eta Larrialdietako eta Babes Zibileko Euskal Sistemaren artean. Horretarako, larrialdietako eta hondamendietan laguntzeko inteligentzia-zentroa sortuko da, EAEko lurraldeen artean eta handik kanpo jardungo duena, behar izanez gero.



KULTURA, EUSKARA ETA KIROLA

1. Kultura

112. KONPROMISOA:

Euskadin sorkuntza eta produkzio kulturalak sustatzea.

- Kulturaren sorkuntza eta ekoizpena babestea, bereziki bultzatuz hala euskarazko kultura nola emakumeen ahalduntzea sormenean eta kulturaren.
- Kulturako profesionalen lan-baldintzak hobetzea:
 - araudi fiskala lan kulturalaren berezitasunera egokitzea.
 - pizgarri fiskalak eta mezenasgo eta mikromezenasgo formulak aplikatzea.
- Jardunbide egokien kodeak sortzea kulturako profesionalak kontratatzeko, gainerako euskal erakundeekin batera.
- Baloratzea kulturako profesionalen ibilbide profesionala, kontuan hartuta irakaskuntza arautuari egiten dioten ekarpena, batez ere lanbide-irakaskuntzari.
- Kudeaketari buruzko prestakuntza, langile autonomoentzat eta kultura- eta sormen-sektoreko mikroenpresa txiki eta ertainetakoentzat. Kultur eragileen ekintzailtza ere babestea, laneratzeko erraztasunak emanez.
- Sormena sustatzea haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan, hezkuntza-sisteman sorkuntza artistiko eta kulturala ezagutzeko programak ezarriz, adostuak Hezkuntza Sailarekin, hezkuntza-komunitatearekin, guraso-elkarteekin eta beste erakunde batzuekin.
- Emakumeak kultura-sormenean eta -ekoizpenean ahalduntzea, eta nabarmentzea zer ekarpen egiten dioten imajinario kolektiboari.
- Elkarrizketa hobetzea, erakunde publikoen artean,
 - HAKOBA kultura indartuz- eta kultura-sarearekin, pandemiaren ondorioak arintzeko.

113. KONPROMISOA:

Euskadiko kultura-eskaintza indartzea eta interkonektatzea.

- Nazioartean euskal arte-sistema bat sortzea, hauen arteko elkarlana sustatzeko:
 - museoak
 - arte-zentroak

- prestakuntza, sorkuntza eta hausnarketarako guneak
- galeriak
- sortzaileak.
- Euskadiko museoaren sarea modu eraginkorragoan eta koordinatuagoan kudeatzea, eredu berri batekin.
- Irakurketa eta Liburua Sustatzeko Euskal Plana, lankidetzaren sustatzearen erakundearen eta hezkuntza- eta gizarte-eragilearen artean.
- Antzerki, dantza, literatura eta musikako jaialdiak eta zirkuitu kulturalak nazioartekotzea, tokiko artisten presentziarekin, euskal hiriburuekin lankidetzan.
- Kultura-kontsumorako politikak bultzatzea, laguntzeko enpresei eta tokiko dendei, hasi zinema-aretoetatik eta zuzeneko musika-aretoetatik eta liburu-dendetaraino.
- Zabaltzea Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea eta euskal liburutegien katalogo kolektiboa.

114. KONPROMISOA:

Euskadiko kultura-ondarea babestea.

- Euskadiko Dokumentu Kudeaketa Integralaren eta Dokumentu Ondarearen Legea, euskal dokumentu-ondarea babesteko eta nabarmentzeko.
- Kultura Ondarearen Legea, ondare immateriala babesteko eta nabarmentzeko, bereziki emakumeen ondarea.
- Euskadiko industria-ondarea babestea eta nabarmentzea. Euskadiko Industria Ondarearen Zentroa jendearentzat irekitzea Orconeran, Barakaldon.

115. KONPROMISOA:

Berrikuntza eta digitalizazioa kulturaren.

- Kultura-politikekiko trantsizio digitala bultzatzea. kultura-ekoizpena sustatzeko, ikusarazteko eta honako hauen arteko harremanak bultzatzeko:
 - programatzaile publikoak
 - sortzaileak
 - herri-ekimenak.
- Kultura- eta sormen-industriak bultzatzea, Euskadi erreferentea izan dadin Europan, Basque District of Culture and Creativity eta "Euskadi Sortzailea" marka sustatuz.
- Euskariana Euskal Kulturaren Atari Digitala sortzea, euskal kulturaren alderdi guztietara iristeko plataforma gisa, Europakoari, Europako Liburutegi Digitalari, lotuta.

- eLiburutegia mailegu-liburutegi digitala garatzea,
- Euskal Kulturaren Atariari lotuta, ikus-entzunezko, soinu-zuko eta hezkuntzako edukien eskaintza zabal dezan.

116. KONPROMISOA:

Euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko presentzia.

- Etxepare Euskal Institutuaren bidez indartzea:
 - euskara eta euskal kultura unibertsitateetan irakasteko programak.
 - euskara Munduan programa.
 - euskal artisten parte-hartzea nazioarteko programa eta jaialdietan.
 - Euskaditik kanpoko kultura-jarduerak.
- Aldebiko programa kulturalak, Euskadirentzat estrategikoak diren herrialde eta eskualdeekin, sustatzeko, Etxepare bidez, kultura-trukeak eta euskal artisten presentzia beste herrialde batzuetan.
- Programatzaileak, komisarioak eta nazioarteko editoreak erakartzeko programak, euskal sormen-eremua ezagutzeko.
- Etxepare bidez, nazioarteko sare eta foroetan parte hartzea kultura-diplomazia indartzeko.
- Euskadiko kultura-industrien parte-hartze handiagoa nazioarteko azoka eta merkatuetan, lan hori indartuz zabalkunde-ekintzekin; Etxeparen zabalkunde eta sustapen kulturala indartzea.

117. KONPROMISOA:

EITBren zerbitzu publikoko izaera.

- EITB Euskadin erreferentziazko komunikazio-taldea izan dadin lortzea, eskaintza ezberdina duen kalitatezko zerbitzu publiko gisa. Eta EITBk euskal ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzea, eta jende guztiarentzako edukiak bermatzea.
- Egin beharreko erreformak amaitzea EITB honelako zerbitzu bat izateko:
 - publikoa, ikus-entzunezkoa eta modernoa
 - objektiboa, lehiakorra eta eraginkorra
 - herritarren behar eta eskaera berrietara egokitua.
 - errealitate soziolinguistikoari erantzuten diona eta euskararen normalizazioa sustatzen duena.
 - Berdintasun-printzipioa eta aniztasun politikoa, erlijiosoa eta kulturala errespetatzen dituen.
- Jarratzea 11. Legengintzaldian Eusko Legebiltzarraren ponentziarekin hasitako lanarekin, EITBren erreforma horiek egiteko.
- Programa-kontratu berria, egoera ekonomikora egokitua eta EITBren zerbitzu publikoa ziurtatuko duena.

2. Euskara

118. KONPROMISOA:

Euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea.

- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana ebaluatzea, eta Hizkuntza Politika gizarte-eragileekin adostea.
- Euskararen Agenda Estrategikoa onartzea eta martxan jartzea.
- Programak eta laguntzak euskararen ezagutza areagotzeko, herritar guztiei B2 mailaraino finantzatuz oro har, eta C1 mailaraino 16 eta 30 urte bitarteko herritarrei.
- Euskaltegiekin lankidetzan aritzea, helduei erraztasunak emateko modalitate erdipresentzian eta plataforma birtualen bidez ikasteko.
- Laguntza gehiago helduen euskalduntze-sistamarako, irakasleen lan-baldintzak hobetuz.
- Migratzaileek euskara ikasteko eta indartzeko programak, gizartearen eta lanean integratzen laguntzeko.
- Eremu formalean eta ez-formalean euskararen erabilera sustatzeko programak:
 - aisialdia eta denbora librea.
 - gizarte hedabideak
 - kirola
 - familia-ingurunea
 - hezkuntza-sistema.
 - kultura
- Hizkuntza Teknologien Plana, euskara sustatzeko Interneteko edukien sorreran eta erabileran.
- Hizkuntza Normalkuntzarako Plana eremu sozioekonomikoan (2020-2023)
- Bermatzea herritarrek euskara erabil ahal izatea bizitzaren eremu guztietan.
- Euskaren ezagutza eta erabilera aztertzeko ikerketak bultzatzea eta Euskararen Adierazle Sistemaren lanean jarraitzea.

119. KONPROMISOA:

Hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta betetzea.

- Administrazio publikoetan euskara Normalizatzeko VII. Plana (2023-2027), honetarako:
 - administrazioarekiko harremanetan herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzea.

- ziurtatzea herritarrek hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izatea.
- euskararen erabilera normalizatzen jarraitzea sektore publikoko lan-hizkuntza izan dadin.
- Administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko dekretua.
- Normalizazio Plana sozietate publikoentzat.
- BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sustatzea, eta egokitzea eraginkorragoa izan dadin.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea Elebide zerbitzuaren bidez.
- Neurriak hartzea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko, eta sektoreko eragileekin akordioak lortzea.

120. KONPROMISOA:

Erakundeen eta euskararen lurralde guztien arteko lankidetzaren indartzea.

- Lankidetzaren areagotzea EAEko erakunde eta eragile pribatuen artean Euskararen Aholku Batzordearen eta HAKOBAREN bitartez
- Lankidetzaren areagotzea euskararen lurraldeen artean "Hirukoltuna" itunaren bidez (2017).
- Euskararen eremu geografikoetako erakunde publiko eta pribatuen arteko hizkuntza-politikak koordinatzea.
- Parte hartzea eleaniztasunari eta hizkuntzen arteko bizikidetzari buruzko nazioarteko programa eta foroetan.

3. Jarduera fisikoa eta kirola

121. KONPROMISOA:

Jarduera fisikoa eta bizitza-ohitura osasungarriak.

- Kirol-txartel bakarraren ereduaren Euskadi osora zabaltzea, herritarrek jarduera fisikoa egin dezaten kirol-instalazio publikoetan.
- Kirola egiteko programak bultzatzea Mugimenduko proiektuarekin, batez ere adin txikikoen eta adinekoen artean.

122. KONPROMISOA:

Jarduera fisikoa eta kirola, berdintasunerako, gizarteratzeko eta euskararen sustapenerako.

- Emakumeei kirolaren maila guztietan laguntzeko programak, eta emakumeen kirol-politikan Europa mailan erreferentia izango den zentro bat sortzea.
- Kirol inklusiboa eta egokitua babestea, desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala dutenek kirola eta jarduera fisikoa egin dezaten eremu guztietan.
- Euskararen presentzia eta erabilera sustatzea kiroleko eta ariketa fisikoko espazioetan, eta euskal kirolarien hizkuntza-eskubideak defendatzea.

123. KONPROMISOA:

Euskal kirol-sistema etorkizunerako egokitzea eta hobetzea.

- Euskal federazioen sistema eraginkortasunez antolatzea foru-aldundiekin batera, hobeto kudeatzeko eta kirolaren arloan eragin handiagoa izateko.
- Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea.
- Jarduera fisikoaren eta kirolaren lege berria, sektoreko erronkei eta beharrei erantzungo diena.
- Dopinaren aurkako Legea egokitzea Dopinaren Aurkako Mundu Agentziaren kode berrietara, eta erakunde hori erreferente izan dadin lortzea.


124. KONPROMISOA:

Euskadi nazioartekotzea kirolaren bidez.

- Euskadin nazioarteko kirol-ekitaldiak egin daitezten lortzea, foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan.
- "Basque Team" bultzatzea goi-mailako euskal kirolaren erreferente gisa, eta kirolari gehiago egotea:
 - nazioarteko lehiaketetan
 - joko olinpikoetan
 - joko paralinpikoetan.
- Babes handiagoa ematea:
 - Euskal selekzioak, Eusko Legebiltzarrean 2021eko abenduaren 31n sinatutakoaren arabera.
 - Nazioartean lehiatzen diren goi-mailako kirolari eta taldeak, Euskadi Basque Country marka ezagutarazten dutenak.
- Bertako kirolak bultzatzea: pilota, herri kirolak, arrauna ... euskal gizartearen tradizioen eta nortasunaren adibide diren heinean.



3. ardatza. PLANETA: Bidezko trantsizio energetiko eta klimatikoa.



ENERGIARI BURUZKO ESTRATEGIA BERRIA

125. KONPROMISOA:

energia-efizientzia handiagoa: autokontsumoa eta generazio banatua.

- Kogenerazioa eta generazio banatu berriztagarria bultzatzea autokontsumo indibidual eta kolektiborako laguntzekin.
- Teknologia fotovoltaikoa, eolikoa eta biomasa erabiltzea eraikin eta etxebizitzetan autokontsumorako elektrizitatea sortzeko.
- Hirigintza-garapen berrietan hornidura termikoko sistema zentralizatuak erabiltzea sustatzea.
- Hirigintzan ikuspegi energetikoa txertatzea. Udalei laguntzea energia-efizientziako planak garatzen.
- Eraikitako etxebizitza-parkea berritzea (bereziki publikoa), energia aurrezteko efizientzia-irizpideekin.
- Obra eta horniduren erosketa publikoa energia-efizientziako irizpideekin.
- Eraikinen birgaitze energetikoari buruzko prestakuntza.
- Pizgarri fiskalen bidez sustatzea: energia-efizientzian inbertitzea industrian, merkataritzan eta zerbitzuetan.

126. KONPROMISOA:

Iturri berriztagarrien erabilera areagotzea energiaren azken kontsumoan.

- Energia sortzeko, iturri berriztagarrien instalazioak gehitzea: lurreko eta itsasoko parke eolikoak, fotovoltaiakoak eta bestelakoak.
- Biomasa- eta geotermia-proiektuak sare komunitarioetan.
- Hondakin organikoetatik abiatuta, biogas-plantak eraikitzea.
- Hidrogenoa erregai berde gisa bultzatzea.
- Biomasa eta bioekonomia sustatzea erregai fosilen kontsumoa murrizteko eta, horrela, nekazaritza- eta basogintza-sektorearen alde egiteko.
- Administrazio publikoa sektore pribatuarentzako eredu eta sustatzaile bihurtzea:
 - erositako energiaren %100 berriztagarria izatea.
 - eraikin publikoetan iturri berriztagarriak instalatuz
 - karbono-aztarna
- Garraio publikoa eta ibilgailu pribatuen flota berritzea, eraginkorragoak eta erregai alternatibokoak sustatuz.
- Energia elektriko berdea eta ibilgailu elektrikoa sustatzea garraioaren sektorea deskarbonizatzeko: emisio txikiko ibilgailuak, elektrolindegia...

127. KONPROMISOA:


Ikerketa energetikoa enpresak eta enplegua sustatzeko.

- Energiaren arloan, ikerketa, teknologia eta enpresa-sarea bultzatzea, RIS3 Euskadi estrategiari jarraituz.
- Honako hauen alde egiten duten ekimenak bultzatzea: olatuen energia, biltegitratzea, off-shore eoliko flotatzailea, sare adimendunak eta hidrogeno berdearen ekoizpena.
- Euskal industriaren trantsizio energetikoa bultzatzea energia-efizientzia eta -aurrezpena ezarriz: berriztagarrien erabilera, CO2 emisioen murrizketa ...

128. KONPROMISOA:

Bidezko energia-trantsizioa.

- Bidezko energia-trantsiziorako plan estrategikoa egoera txarrean dauden pertsonak babesteko eta pobrezia energetikoa saihesteko.
- Pertsona guztiei bermatzea energia-zerbitzu eskuragarriak, fidagarriak eta modernoak.



KLIMAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ALDEKO EKINTZA.

129. KONPROMISOA:

Karbono gutxiko ekonomia baterantz, enplegua sortzeko eta industria eta teknologia garatzeko.

- Pixkanaka, garraioa deskarbonizatzea, trenaren aldeko apustua eginez.
- Eskualde eta udalerrietako mugikortasun jasangarriko planak.
- Bizikleta izatea herri eta hirietako garraiorik jasangarriena.
- Lurralde- eta hirigintza-plangintzako politikak, klima-aldaketaren gaineko ondorioak kontuan hartzen dituztenak.
- Zeharkako I+G+Ba klimaren aldeko ekintzan.
- Zerga-kenkariekin lotutako teknologia garbien euskal zerrenda handitzea.
- Ekoberrikuntza- eta basoberritze-proiektuak, zuhaitz-azalera 10.000 hektarea handituz urtean CO2ko 25.000 tona xurgatzeko.

130. KONPROMISOA:

Klima-gobernantzako eredu berri bat.

- Osorik garatzea dagoeneko onartuta dagoen Administrazio Publikoetako Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea.
- Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Lege berria, zeinaren helburua baita 2050. urterako karbono-neutraltasuna lortzea.
- Estrategia klimatikoen eta energetikoen arteko koordinazioa.
- Udal-lankidetzak, Udalsarea 2030en barruan, energia eta klimaren arloko ekintza-planak garatzeko.
- Udalerriek parte-hartze aktiboa izatea Global Covenant of Mayors for Climate and Energy itunean.

131. KONPROMISOA:

Enplegu berdea eta berrikuntza ekonomia zirkularrean.

- Ekonomia Zirkularrean Estrategia hedatzea.
- Ekonomia zirkularreko berrikuntza BRTA-Basque Research Tecnolgy Alliance-n txertatzea, industria berritzeko eta enplegua sortzeko.
- Ekonomia zirkularreko prestakuntza, unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren lankidetzarekin.

- Ekonomia zirkularra eta ekoberrikuntza Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2030erako plan berriaren funtsezko elementuak.
- Sektore industrialarentzako plana, materialen efizientzia % 30 handitzeko produkzio-eredu berrien eta produktuen ekodiseinuaren bidez.
- Produktu jakin batzuetan "ingurumen-aztarna" proiektu pilotu gisa ezartzea.
- "Basque Ecodesign Center", Europako erreferentzia-zentro gisa.
- "ETE zirkularra" ETEei laguntzeko programa gisa.
- "2030 Bioekonomia Euskadi" Estrategia hedatzea

132. KONPROMISOA:

Hondakinak murriztea eta haien birziklapena eta balioa areagotzea.

- Hondakinen kudeaketari eta balioari heltzea eta materialak berrerabiltzea.
- Industria-hondakinak aprobetxatzeko ikerketa-proiektuak, zentro teknologikoekin lankidetzan.
- Europako erreferentzia-zentro gisa, kudeaketa publikoko zentroa, industria-hondakin ez-arriskutsuak gaika biltzeko karakterizatzeko, biltegitratzeko eta balorizatzeko.
- Hondakinen estrategia, hiru lurraldeetarako lege-araudi eta helburu komunak dituen. Gobernantza komuna zero hondakin dituen lurraldea lortzeko.
- Hondakin-isurketen ekotasa, ekonomia zirkularra sustatzeko, balorizatu ezin diren hondakinak murrizteko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko.
- Elikagaiak xahutzearen aurkako araudia, %30 murrizteko helburuarekin.
- Elikadura-soberakinak berreskuratzea; gizakiei emango zaie horiek erabiltzeko lehentasuna.
- Plastikozko ontzien % 75 birziklagarriak izatea lortzea. Kendu egingo dira erabilera bakarreko plastikozko poltsa ez-birziklagarriak.
- Birziklatzearen sektoreko enpresak indartzea.
- Europar Batasunaren "Iceberg proiektua", eraikuntza- eta eraispin-hondakinak gehiago birziklatzeko.
- Sustatzea erosketa publiko berdea eta, lizitazioetan, hondakin industrialen baloraziotik eratorritako azpiproduktuak erabiltzea.
- Aurrera egitea lehen mailako hiri-hondakinen zero isurketerantz, tratatu beharrik gabe, udalekin lankidetzan.



NATURA-INGURUNEA KONTSERBATZEA ETA BIODIBERTSITATEA ZAINTZA

133. KONPROMISOA:

Uraren erabilgarritasuna, kalitatea eta kudeaketa jasangarria.

- Edateko uraren sareen kudeaketa eraginkorra, sistemaren galerak murrizteko.
- Hornidura-sare adimendunak, uraren erabilera seguruagoa eta kontrolagarriagoa lortzeko.
- Teknologia berriak, ureztapenetan ur-kontsumoa optimizatzeko, batez ere klima-aldaketak gehien eragingo duen lekuetan.
- Hondakin-uren saneamendua eta arazketa hobetzea. Helburua da saneamendu-sistemaren %100 osatzea 2030erako, eta tratatu gabeko isurketen emisioa ia zerora murriztea.
- Hondakin-urek eragindako kutsaduraren kontrola, erregulazioa eta ikuskapena indartzea.
- Hondakin-urak tratatzeko, balorizatzeko eta berrerabiltzeko teknologia berriak garatzea.
- Sustatzea:
 - euri-uraren drainatze jasangarriko sistemak.
 - ekonomia zirkularra uraren sektorean.
 - kontratazio berdea, ura berrerabiltzeko.
- Uraren hiri-zikloaren kudeaketa hobetzea uraren zuzentarau europarrarekin bat datorren tarifa homogeneous bidez, zeinak lerrokatua egongo baitira ura hartzeko, banatzeko eta ustiatzeko eta saneatzeko eta arazteko kostuekin.
- Uholdeei aurre egiteko saneamendu-, hornidura- eta defentsa-azpiegiturak arro hidrografikoetako uren kalitatea hobetzeko.

134. KONPROMISOA:

Ingurumen-politika aurreratua, natura-ingurunea eta ekosistemak hobetzea eta lurreko eta itsasoko biodibertsitatea babestea.

- Euskadiko 2030 V. Ingurumen Esparru Programa.
- Ingurumen Administrazioaren Legea, industria ingurumen-ikuspuntutik hobetzeko (emisioak eta prozesuak) eta ingurumen-baimenak arintzeko.
- Natura Ondarea Kontserbatzeko Legea, Euskadiko natura-ondarea babesteko, kontserbatzeko, kudeatzeko modu jasangarrian erabiltzeko leheneratzeko eta hobetzeko.
- Lurzorua babesteko eta kutsatutako 400 hektarea berreskuratzeko euskal estrategia.
- Atmosferaren kutsadura kontrolatzeko plan berria.
- 2030erako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa.
- Kudeaketa eraginkorra, Natura 2000 Guneen eta Naturan Oinarritutako Konponbideena.
- Udal zein eskualde mailan kutsadura akustikoa murrizteko ekintza-planak eta 2000 Natura Sarea bultzatzea.
- Europar Batasunarekin lerrokatutako zerga-politika berdea, foru aldundiekin lankidetzan.
- "Ingurumenaren aldagaia" lurralde-antolamenduan txertatzea, ingurumen-adierazleen jarraipen-txostenekin batera.



4. ardatza. AUTOGOBERNUA: Autogobernu gehiago eta hobea.



EUSKADI-BASQUE COUNTRY

135. KONPROMISOA:

Munduan euskal interesak sustatzea.

- Martxan jartzea 2025 Euskadi Basque Country nazioartekotzeko esparru-estrategia, lankidetzan hala Eusko Jaurlaritzaren barruan nola nazioartekotzeko gainerako erakunde eta euskal eragileekin.
- Euskadiren atzerriko delegazioen erakunde-sarea indartzea.
- Bazkide estrategikoen sarea, sektore anitzeko eta alde biko lankidetzan oinarritutako proiektuak garatzeko.
- Honako hauekiko harremanak bultzatzea:
 - lehentasuneko herrialdeetako erakundeak
 - ordezkariak diplomatikoak
 - erreferentziako *think Tanks*
 - nazioarteko organismoak
 - erreferentzia-sareak.

Eta euskal nazioartekotze-proiektu gehiago egon daitezen erraztea.

136. KONPROMISOA:

Euskadi Basque Country marka kanpoan.

- Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzeko plana, bat etorriaz Euskadi Nazioartekotzeko Euskal Esparru Estrategiarekin.
- Jarduketa-plana garatzea, nazioartekotzeko euskal sistemarekin lankidetzan, eta sektore anitzeko jarduerak eta inpaktukoak finantzatzea "Euskadi Basque Country" marka kanpoan sustatzeko.

- Kanpoan ezagutaraztea zer ekarpen egiten dien Euskadik Nazio Batuen 2030 Agendako garapen jasangarriko helburuei.

137. KONPROMISOA:

Parte-hartze aktiboa Europako proiektuan.

- Euskadiren parte-hartzea eta ordezkartza hobetzea Europar Batasuneko kontseiluetan, bereziki Euskadiren eskumen eskusiboak diren gaietan.
- Estaturaz azpiko beste gobernu batzuekin lankidetzan aritzea Europar Batasunean benetako gobernantza bultzatzeko.
- Europako programa eta proiektuetan euskal partaidetza handitzea. Bereziki, *Next Generation EU*-n (EBko Hurrengo Belaunaldia) eta proiektu hauetan:
 - arlo hauetako eraldaketak: energia eta ingurumena, teknologia eta Internet eta arlo soziosanitarioa.
 - ikerketa
 - ekosistema industrialak
 - kultura
 - Unibertsitate-prestakuntza eta Lanbide Heziketa.
- Partaidetza handiagoa herrialde ezberdinetako eskualdeen arteko lankidetzaren sareetan Bereziki, Arku Atlantikoko Konferentzian eta Pirinioetako Lan Elkartean.

138. KONPROMISOA:

Munduko Euskal Diasporarekiko loturak.

- Euskal Etxeen ekimenak eta proiektuak babesteko programak gazteentzako lan-plan espezifikoko batekin, jakintzaren transmisioa eta belaunaldi-erreleboa ziurtatzeko.
- "Basque Global Network" sare birtuala, munduan benetako euskal komunitate globala sortzeko.
- Euskal emigratio berriaren mapa, euskal diaspora berria artatzeko eta elkartzeko politikak egiteko.
- Arreta ematea atzerrian zaugarritasun-egoeran dauden euskaldunei.
- Aholku ematea Euskadira itzuli nahi dutenei, dauden programa eta ekimenei buruzko informazioarekin.

139. KONPROMISOA:

Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria euroeskualdea.

- Lankidetzaren irekiagoa eta parte-hartzaileagoa bultzatzea mugaz gaindiko eremuen artean.
- Prestakuntza eta enplegua sustatzea zenbait herrialdetako eskualdeetan.
- Nafarroarekin eta Iparralderekin lankidetzan aritzea kulturaren eta kirolean, eta, bereziki, euskaran.
- Ikerketa- eta industria-proiektuetan Europako mugaz gaindiko lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzea.



TRANTSIZIO SOZIALA ETA 2030 AGENDA

140. KONPROMISOA:

Trantsizio soziala eta “Bizi Berri Plan” berria.

- Euskadiko Erronka Demografikoaren Plana, gazteak independizatzeko eta familiei eta jaiotza-tasa erantzukideari laguntzeko. Helburua da familiek nahi adina seme-alaba izatea eta amatasuna eta aitatasuna beste bizi-proiektu batzuekin uztartzea.
- Erronka Demografikoaren Plana koordinatzea sailen, erakundeen eta gizartearen artean, politika koherente eta integralak aplikatuz.
- Trantsizio soziosanitariorako Bizi Berri Plana eguneratzea eta haren edukiak eta erabakiak Covid 19aren bilakaerara egokitzea.
- Migraziorako Euskadiko Gizarte Itunaren aurreikuspenak garatzeko proposamenak sustatzea itunean parte hartzen duten erakundeekin lankidetzan.

141. KONPROMISOA:

2030 Agenda.

- Ebaluatzea eta jarraitzea zer ekarpen duen Euskadik Nazio Batuen garapen jasangarriko helburuak betetzeko. Urtero Eusko Legebiltzarrari helburu horien bilakaeraren berri ematea.
- 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa egitea eta sailen, erakundeen eta gizartearen arteko lankidetzaren bultzatzea politika koherenteekin.
- 2030 Agenda garatzeko nazioarteko aliantzak bultzatzea Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin batera.



AUTOGOBERNUA

142. KONPROMISOA:

Autogobernuaren lege-garapena.

- Legegintzaldiko programa onartzea Gobernu berria eratu ondorengo lehenengo 3 hilabeteetan. Eta programa bete dadin sustatzea eta haren jarraipena egitea.

143. KONPROMISOA:

Erakundeen arteko koordinazioa.

- Politika estrategikoak koordinatzea foru-aldundiekin eta udalekin batera, eta horretarako:
 - behar diren koordinazio-mekanismoak eta -organoak sortzea.
 - lanerako espazioak sortzea.
 - erakundeen arteko lankidetzaren babestea.
- Hori guztia gizarte gisa ditugun erronka handiei aurre egiteko.

144. KONPROMISOA:

Autogobernuaren defentsa.

- Euskadik lortu duen autogobernua defendatu eta bultzatzea.
- Legebiltzarrak edo Eusko Jaurlaritzak onartutako politika publikoak murriztea bilatzen duten jarduerak salatzea. Zerga- eta finantza-politikako eskumenek errespetatu behar dute hala Euskal Ekonomia Ituna nola Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan eztabaidatu eta hartutako erabakiak.
- Autogobernua Defendatzeko Sailak txostenak egingo ditu Konstituzio-legezketasunari eta Gernikako Estatutua errespetatzeari buruz. Euskal autogobernua betetzen ez denean, gatazkak saihesteko irtenbideak bilatuko dira, "lankidetzaren gutunarekin", eta ahaleginak egingo dira prozesu judizialean ez sartzeko.
- Lankidetzan aritzeko eta euskal autogobernua defendatzeko neurriak ez badute dute emaitzarik ematen, Autogobernua Defendatzeko Sailak eragindako sailarekin kontsultatuko du. Ondoren, prozesu konstituzionalak edo judizialak hasteko proposamenak
- Gobernu Kontseilura eramango ditu. Eusko Jaurlaritzak parte hartzen duen prozesu guztietan beti saiatuko da Aldebiko Lankidetzaren Batzordean negoziatzen autogobernua mantentzeko baldintzarik onenak, eta gatazka judizialak saihesten.

145. KONPROMISOA:

Euskadiko autogobernu ekonomiko eta finantzarioa.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren arteko Ekonomia Ituna eguneratzea, zerga-arloan autogobernua indartzeko eta zerga itunduak arautu eta berriak sortu ahal izateko.
- Behar diren akordioak bultzatzea, 2022-2026 urteetarako kupo ezartzeko metodologiari buruzko lege berria onartzeko.
- Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa bultzatzea, Estatuaren eta Euskadiren arteko harreman ekonomiko eta finantzarioak arautzeko eta transmititzeko.
- Beharrezkoak diren akordioak bultzatzea ekarpenen lege berrirako testu berri bat onartzeko, bermatuko duena euskal administrazio publikoek finantza-nahikotasuna izaten jarraitzea.
- Euskadiko ordenamendu juridikoa eguneratzen jarraitzea ekonomiaren eta finantzen eremuei dagokienez, Euskadiko Ogasun Nagusiak modu eraginkor, moderno, egonkor eta gardenean arautu ahal izan dezan.

146. KONPROMISOA:

Transferitzeko dauden eskumenak.

- Espainiako Gobernuarekin lan egitea negoziazio hauek amaitzeko:
 - transferitu gabeko eskumenak, transferitu daitezkeen gaiak eta zerbitzuak.
- Kronograma eguneratzea, Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari 2020ko otsailean bidali ziona, COVID-19ren krisiak transferentzia-epeei eragin baitie.



KUDEAKETA PUBLIKO GARDENA ETA ARDURATSUA

147. KONPROMISOA:

Administrazio hurbilagoa, sinpleagoa eta efizienteagoa.

- Sektore Publikoaren Legea onartzea, Eusko Jaurlaritzak hobeto koordinatzeko erakundeen arteko lana, eta erakunde desberdinek ataza berak egitea saihesteko.
- Administrazioaren eta herritarren arteko harreman-eredu berria, digitalizazioa eta sinplifikazioa bultzatuko duena, zerbitzuak edozein lekutatik eta edozein gailutatik beti eskuragarri egotea lortzeko.

Honako hauek ere eskaintzea:

- zerbitzu errazak, hizkuntza erraza erabiltzen dutenak
- kanal digitala, herritarrekiko harremanetarako leihatila bakarrarekin.
- mugikorraren bidezko harremana.

148. KONPROMISOA:

Administrazio irekiagoa eta gardenagoa.

- Gardentasunari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Legea, ziurtatzeko:
 - administrazioaren gardentasuna herritarren aurrean.
 - herritarrek arazo publikoetan parte har dezaten.
 - gobernu-programa betetzeari buruzko kontu-ematea.
- Arau bat egitea, sustatuko duena administrazioen publikoen eta sindikatu- eta enpresa-antolakundeen arteko elkarrizketa soziala, politika publiko hobeak egiteko.
- Datuen gobernanzarako oinarri sendoa, datuak trukatzeko eta berrerabiltzeko ingurune fidagarri eta seguruak izateko.
- Datu irekien eta datu estekatuen estrategia bultzatzea. Euskadiko herritarrek eta berrerabiltzaileek eskatzen dituzten datu-multzoak identifikatzea Erakundeen artean zerbitzu berriak normalizatu eta sortzea.
- Gobernu irekiaren estrategia eta nazioarteko aintzatespena Gobernu Irekirako Aliantzarekiko lankidetzarako, eta gobernu irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentikorragoak bultzatzea.
- Herritarren parte-hartze handiagoa, eta haien iritziak aktiboki entzutea. Adierazleen sistema prozesu jarraitu bat izatea, kudeaketa publikoa ebaluatzeko eta hartaz informatzeko denbora errealean.

149. KONPROMISOA:

Administrazio berritua eta digitala.

- Euskal Enplegu Publikoaren Legea, behin-behinekotasuna murrizteko euskal administrazio publikoan:
 - aldi baterako langileak finkatzeko prozesuak
 - funtzionarioen belaunaldi-erreiboko lan-eskaintza publiko berriak.
- Funtzio publikoan sartzeko sistemak berritzea gardenagoak eta arinagoak izan daitezen, eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bete ditzaten.
- Berrikuntza publikoa bultzatzea egitura horizontalagoekin langileek parte gehiago hartuz erabakietan.
- Gobernu Digitalaren Euskal Estrategia, lankidetzaz sustatzeko erakundearen artean eta sektore pribatuarekin, eta herritarren karpeta bateratu bat sortzeko.
- Arau- eta administrazio-prozesuak sinplifikatzea herritarrek eskatzen dutenari arinago eta laburrago erantzuteko.
- Adimen artifizialeko proiektu pilotua Administrazioan non teknologia berriak eta teknologiaren berrikuntza aprobetxatuko diren Gobernuaren ekintza eta herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko.

150. KONPROMISOA:

Baliabide publikoen kudeaketa.

- Plangintza ekonomiko eta estrategikoaren garapena herriaren erronkei eta 3 trantsizio globalei aurre egiteko:
- energetiko-ingurumenekoa
 - teknologiko-digitala
 - eta sanitario-soziala
- Ekonomia planifikatzeko ereduak eta honako hauek integratzeko aurrekontua:
 - politika publikoen plangintza
 - aurrekontu-programak
 - inbertsio- eta sustapen-planak.
- Politika publikoen gardentasunaren etengabeko jarraipena bultzatzea, gardentasuna eta kontu-ematea sustatzeko.
- Berreskuratzeko proiektuak planifikatzea Europar Batasuneko Next Generation (Hurrengo Belaunaldia) programan eta Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazionalan.
 - Aurrekontu-politika lantzen jarraitzea, baliabide eta finantza publikoak ondo kudeatzeko. Defizitaren eta zorraren mugak betetzea esparru malgu baten barruan, ziklo ekonomikora egokitzeke.

- Gizarte-politikak bermatzea eta Covid-19ak sortutako ekonomia- eta enplegu-krisiari erantzutea.
- “Finkatuz” funts publikoa abian jartzea enplegua sortzeko, ekonomia berreskuratzeko, enpresei egonkortasuna emateko, berritzeko eta gizarte-kohesioa sustatzeko.
Hona helburuak:
 - euskal enpresa handien sustraitzea ziurtatzea.
 - enpresa txiki eta ertainak arrisku-kapitaleko funtsekin finantzatzea.
 - finantzaketa publikoa Finantzen Euskal Institutuarekin kudeatzea.
 - gizarte-kohesioa eta ingurumen-jasangarritasuna lortzeko, funts jasangarriak igortzea.
- Euskadiko zerga-sistema berrikustea
Zerga Koordinaziorako Organotik, fiskalitate progresiboagoa ezartzeko, COVID-19ak sortutako errealitate ekonomiko berrira egokitua.
Ildo horretan, hona Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa:
finantza-nahikotasuna izatea, enplegua sortzen duen ekonomia sustatzea, zerbitzu publikoak indartzea eta Europako fiskalitatearekiko konbergentzia.
- Foru-aldundiekiko lankidetzaren areagotzea zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko.
Zerga Koordinaziorako Organoak iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko plan bat egingo du eta administrazioen artean informazioa trukatzeko sistemak hobetuko ditu.
- Kontratazio publikoetan klausula sozialak txertatzea, honako hauek ziurtatzeko:
 - kalitatezko enplegua.
 - gizarteratzea eta laneratzea
 - ingurumena babestea
 - emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasuna.
- Euskal sektore publikoko entitateen kontrol-sistemak hobetzea, bereziki enpresa eta fundazio publikoenak.
- Herritarrei informazio gehiago ematea
Euskadiko sektore publikoko entitate guztien aurrekontuei eta ekonomia- eta finantza-egoerari buruz.
- Gobernu Arduratsuaren Eredua eta eremu ekonomikoan Arriskuak Kudeatzeko Esparru Integratua, Euskadiko sektore publikoaren kudeaketa hobetzeko eta helburuak betetzeko.

